

argia



2015eko irailaren 27a | LXXVIII. urtea | 2.476 zenbakia | 3,90 euro

ARGIA EGUNA OÑATIN **ELKARREKIN EGIN AHAL DUGUNAREN HAZIA**

1975eko fusilatzeak

- Otaegiren memoria bizia
- Desinformazioari aurre egin zion buletina



argia eguna 2015

TXIKITIK ERAGITEN

Esker mila festa hau egiten lagundu diguzuelako



Batukada
Feminista

Bertso
Eskola

Doke
Jokue



Gabiriako
Gazteak

Herrixka
Kantuan



Makalena
Elkarte
Gastronomikoa




Naturzaleen
Taldea

Oinaztu
Taldea

Oñatiko
Gaztetxea



Festari zabalkundea ematen nahiz bolondres lanean aritu zaretenoi ere, eskerrik asko!





Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: ANTZA

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estixu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argaia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Diseinua: Sergio Labrador. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argaia.eus. Harpidetza: harpidetza@argaia.eus. Erredakzioa: kazeta@argaia.eus. Interneten: www.argaia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekora, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko irailaren 27a, 2.476. zenbakia

ASTEKO GAIA

ARGIA EGUNA Txikien egun handia. LANDER ARRETXE
BEREZIARTUA / 4

PERTSONAIA

MERTXE URTUZAGA OTAEGI: «Pentsatzen ez genuena etorri zen: biktima aitortu zuten Anjel». MIEL A. ELUSTONDO / 11

GAIK

KOLDO TELLITU, IKASTOLEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA:
«Ziurgabetasuna aukera bihurtu behar dugu, elkarrekin gure hezkuntza sistema eraikitzeko». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 16

IRITZIAREN LEIHOA

RED-WASHING INPERIALISMOAREN ZERBITZURA

ASIER BLAS MENDOZA / 22

BADATOR JOXEMIEL BIDADOR, BADOA URTE ILUNEN AROA

ENRIKE DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÁ / 24

TXINA: WĒIJĪ GORA, WĒIJĪ BEHERA

ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN / 25

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 23

TXANDAN Badator martxa. OIHANA ETXEBARRIETA / 24

ERDIKO KAIERA

MUSIKA IRIZPIDEAK EITB-TIK KANPOKO IRRATIETAN

Gaztearen faltan, libreka. KEPA MATXAIN / 26

SJÓN, IDAZLE ISLANDIARRA: «Diruditena baino

konplikatuagoak dira herri literaturako istorioak».

GORKA BEREZIARTUA MTXELENA / 30

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32

MUSIKA JOXI UBEDA / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 34

TELESAILAK GAIZKA IZAGIRRE / 35

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 36

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 37

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 38

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 39

TERMOMETROA

1975EKO FUSILATZEAK Prentsa klandestinoa elkartasun sortzaile. JUAN MARI ARREGI / 40

‘GEUREKIN MENDIRA’ EKIMENA 20 urte euskara eta mendia atsegin ez uztartzen Gasteizen. MIEL A. ELUSTONDO / 43

TXANPONAREN BESTE ALDEAK Soldatzaileek badakite bestelako bideragarritasun plana egiten.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Europako ezkerria kontraerasoan dator:

«Jo ezkerreerago!». PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

ARGIA EGUNA

Txikien egun handia

ARGIAKO harpidedun, irakurle, langile eta zaleon eguna izan zen irailaren 20ko igandea. Non eta Oñatin, bertako herri-eragileen eta herritarren laguntza eta presentzia nabarmenarekin. Tartean, festa giroa, bertako produktuak, egitarau oparoa eta primizia bat: astekariaren diseinu berriua erakusten duen 0 alea.

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |

Argazkiak: Dani Blanco

“HAU ANTOLATU DUENAK zientoka langile behar ditu izan”. Hori pentsatuko zuen igandean goizean Oñatiko Foru Enparantzara hurbildu zen despistaturen batek, lehen begiratu eman orduko. Ez zebilen horren oker; langileak ez, baina ehunka bidelagun badituelako ARGIAK. Tartean, Argia Egunean ezinbestekoak izan ziren eta lan boluntarioaren bidez lagundu zuten eskualdeko herri-eragile guztiak. Despistatuak ere segituan ulertuko zuen bertan topatu zuena horrexek egiten zuela posible. Nahikoa izango zuen enparantzaren albo batean jarritako pankarta handia irakurtzea: “Jende txiki askok, gauza txikiak eginez, mundua alda dezake”.

Txikitik eragiten lelopean, txiki askoren lanari esker borobildutako eguna izan zen beraz, igandekoa. Eta komunitate bat jai giroan elkartzen duen egun oro den bezain handia; handitasuna ez delako soilik kopurutan neurtzen.

Goiza hasteko, bisita gidatua eta azoka

Goizeko 10:00etan izan zen egunari hasiera emango zion bisita gidatua. Eguraldi paregabearen babesean, Gerardo Elortza historiagileak Oñatiko historia eta arkitektura aberatsaren berri eman zien jakin-minez gerturatutako 80 bat lagunei, ñabardura eta ohar bikainekin. Ez zen ohiko bisita izan ordea: herriko bertso eskolan aritzen diren Egoitz Aizpuru, Maider Arregi eta Urko Arregi bertsolariak umore finez jantzi baitzituzten Elortzaren azalpenak, ibilaldia are atseginago eginez.

Bisita gidatua amaitu aurretik hasi zen berotzen Foru Enparantzako giroa. 11:00etan harre-ekitaldia gidatu zuen Olatz Korta ARGIAKO kideak, egunaz gozatzeko argibideak azaldu eta laguntzaile guztiei eskerrak emanez. Segidan, aurtengo berrikuntza izan den eragileen azokarako bidea erakutsi zigun. Bertan ziren, postu banatan, mundua txikitik aldatzeko lanean ari



Barneko sabaia edo
pareta estaltzeko
teknologia berria

Kondentsazioa
Kapilaritatea
Konfort akustikoa
Elegantzia
Diseinua
Arin eta obra gabe
Iraunkorra

sabaitek
Sabai tenkatuak
www.sabaitek.com
943 76 3744



MARCO S
okindegia

Benetako
aitzinako ogia

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



Eskulanen
Etxea

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com



Goitik hasita, Olatz Korta ARGIAko kidea Argia Egunari hasiera ematen. Gerardo Elortzak jendetza bildu zuen Oñatin bertan egindako ibilbide historikoan. Batukadak goizeko freskura berotzen lagundu zuen. Azoka gunean kantu saio ederra izan zen. Diseinu berritua izango duen 0 aleaz berriketan Argia zaleak. Eguerdian atsedena, sabela goxatzeko ordua.



Ariketa zailak jarri zizkien Jakoba Errekondori Olariaga, Axi eta Josevisky marrazkilariek. NAN arrotzen jaurtiketan parte-hartzaileak ugari, baina iazko marka ez zuen inork gaititu.

diren talde eta ekimen mordoak: Fracking Ez, Olatukoop, Txatxilipurdi, Arrasate Euskaldun Dezagun, Ekin, Topagunea, Txirrinka, Fiare, Elkar Hezi, Bizil, Bilgune Feminista, Emakumeen Mundu Martxa, Askapena, Euskal Herrian Euskaraz, Euskal Memoria, Intxorta, Joxemi Zumalabe, Erein Da Jan, Ortuzabala, Bagara, Eltzia, Lanki, REAS... Goiz osoa eman zuten hurbiltzen zitzaizkienei euren aldarrikapenen berri eman eta materiala saltzen.

Emakumeen Mundu Martxako ordezkari gisa zen bertan Mariasun Zelaia Zumelaga, eta pozik zen postua jartzeko aukerarekin: "Uste baino askoz jende gehiago hurbildu da, eta oso giro ederra topatu dugu gainera. Jende oso anitza dago hemen, eta aukera ona da beste proiektuak ezagutu eta geurea eza-gutarazteko".

Nendo Dango tailerra eta jolas hezitzaileak

Goizeko egitarau oparoaren baitan, izan zen bestelako ekimenik ere. Txatxilipurdi elkar-teak antolatuta, 50 ume eta helduk hartu

zuten parte ginkana hezitzailean. Lau gai lantzeko (hizkuntz aniztasuna, herri nortasuna, garaiko eta tokiko elikagaien dastatzea eta jendartearen bilakera), taldetan banatu eta hainbat egoerari egin behar izan zioten aurre; beti ere parte-hartzea sustatzeko xedearekin, jolasa eta hezkuntza uztartuz.

Aldi berean, 2014an Usurbilen egindako Argia Eguneko arrakasta errepikatuz, Nendo Dango tailerra egin zen Oñatiko pilotaleku inguruan. Zuhaitzen eta bestelako landareen haziak buztinezko bolatxoaren barruan gorde zituzten bertara hurreratu zirenek, landaredia galdu duen inguru batera jaurtiz, birlantatzeko asmoarekin.

Argiazaleek epaitutako diseinu berria

12:30ean hasi zen argiazale eta eragileen topaketa. Argia Egunaren helburu nagusietako bat harpidedun, irakurle eta abarrekin bildu eta haien iritziak jaso ahal izatea da, eta horretarako parada egun osoan izan bazen ere, mahai bueltan egindako berriketa saioa



izan zen aukerarik onena. Hainbat gai jorratu ziren bertan (komunitatearekin harremana, edukiak...) baina hizketagai nagusia, astekariaren diseinu berria izango denari ekarpenak egiteko propio osatutako 0 alea izan zen.

Estitxu Eizagirre ARGIAko zuzendariak gogorarazi zuenez, 2014ko Argia Egunean egindako topaketan batek baino gehiagok adierazi zuen diseinua berritu beharra zegoela, eta geroztik, urte osoan aritu dira horretarako lanean. "ARGIA barruan prozesu partehartzailea jarri dugu martxan diseinu berria osatzeko, eta argiazaleei ere zabaldu nahi genien prozesu hori".

Oro har, harrera ona izan zuen ale berriak, eta aldaketa asko ia aho batez jo zituzten ontzat parte hartu zutenek. Malen Aldalur ARGIAko kolaboratzaileari esaterako, argazkiek presentzia gehiago izango dutela gustatu zitzaion bereziki. "Beranduegi (web telebista

Aran eta Lo musikariak Argia Eguna bukatzerik nahi ez zutenei azken doinuak eskaintzen.

saio umorezkoa eta kritikoa) paperera eraman dutela ere ikusi dut, umorea jorrazteko. Ideia ona dirudi". Bestalde, Danele Sarriugarte idazleari diseinu berria "minimalistagoa" dela iruditu zitzaion, eta asmatu egin dela horretan.

Baratzea ere protagonista

Goiz emankorraren ostean, espero baino apur bat beranduago hasi zen bazkaria. Bertako eta garaiko produktuen aldeko aldarrikapenak praktikara eramanez, Erein Da Jan eta Lur Lan elkartearen eskutik egin zuen askok pasa den Argia Egunetik buruan zuten ordu oparoaren parekoa. Logika bera jarraituz, enparantzaren bazterrean jarritako txosnan ere txorrotako ura eta Arrasateko ZerB garagardoa eskaini ziren egun osoan zehar. Oñatiko moneta soziala den txantxiarekin ordaintzeko aukera ere izan zen gainera.



**GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2015**



www.bertsotzale.eus

AZPEITIA Irailak 26	LASARTE-ORIA Irailak 27
Soreasu antzokia 17:30	Manuel Lekuona Kultur Etxea 17:30
<p>Unai Mendizabal Jauregi</p> <p>Amara Iturriotz Etxaniz</p> <p>Nerea Elustondo Plazaola</p> <p>Ander Lizarralde Jimeno</p> <p>Nahikari Gabilondo Mendizabal</p> <p>Arkaitz Oñartzabal Agirre "Xamoa"</p>	<p>Maidar Arregi Markuleta</p> <p>Mikel Artola Izagirre</p> <p>Aitor Irastortza Fadrique</p> <p>Xabier Sukia Etxeberria</p> <p>Beñat Lizaso Alberdi</p> <p>Gorka Azkarate Torner</p>
Sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean edo egun berean leihatlan.	
Final zortzirenak	

Laguntzailea: 

‘Trantsizioak’ erakusketa

EGUN OSOAN ZEHAR, nos- talgiak edo jakin-minak jotako jende mordoak miatu zuen estreinekoz Oñatiko Gaztelekuan erakutsi zen *Trantsizioak* erakusketa. Museo askok nahi lukete horrenbeste bisitari izan. ARGIA azken 40 urteetan pilatutako artxibo historikoan dauden milaka argazkien lagin adierazgarria biltzen du erakusketak, gaika antolatuta. Urko Apaolaza kazetariak hartu du irudi artean galdu eta hautaketa egiteko lana. “70eko hamarkadatik aurrera eman diren eraldaketak erakutsi nahi izan ditugu argazki hauen bidez, eta baita ARGIAK urte haue- tan guztietan jorratu dituen gaiak zeintzuk diren ere”.



Tartean baziren 70eko hamar- kadako emakumeen asanbladen argazkiak, 1976an antolatutako *24 orduak euskaraz* irratsaioa emititzen zuten bitartean hartutakoak, eta baita berriagoak ere, *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren aurka Donostian egindako manifestazio-

koak esaterako. Apaolazari adierazgarriena iruditzen zaiona ordea 1980an “Eus- kara nafar hizkuntza” lelo- pean Iruñean egindako manifestazioan ateratakoa da. “Oso eguraldi petrala egin zuen eta aterkiekin babestuz agertzen da jen- dea haizeari eta euriari kontra egiten saiatzen. Oso ondo adierazten du zenbat lan egin behar izan zuten euskararen alde”.

Erakusketan bertan ikusgai jarritako ARGIA eta *Zeruko Argiaren* ale zaharrek ere berega- natu zuten bisitarien arreta. Apa- lazaren arabera, erakusketa ibiltar- ria izateko bokazioz jaio da eta asmoa da Oñatin hainbat astez egon ostean, beste herri batzuetar- a ere eramatea.

Bazkalostean egokitu zen eguneko unerik umoretsuena. Jakoba Errekondo agronomo- ak hizketarako duen dohaia eta jakituria fro- gatu zuen beste behin. Antton Olariaga, Jose- ba Larratxe (Josevisky) eta Ainara Azpiazu (Axpi) marrazkilarien ilustrazioen doinu eta neurri inprobisatuz, baratzaren bueltako kontuez mintzatu zitzaigun. Umora fina eta azalpen argigarriak uztartuta osatu zuen *Bizi Baratzea* liburuan aurki daitekeenaren lagina.

II. NAN arrotzen jaurtiketa

Arratsaldean iritsi zen kirolarienek espero zuten zita. 2014ko Argia Egunean nortasun agiri arrotzen Euskal Herriko lehenengo

jaurtiketa txapelketa antolatu bazen, bigarre- na izan zen Oñatiko, ohiturarekin jarraituz. Katalunian eta Asturiasen ezaguna den prak- tika gurean ere zaleak pilatzen ari da apurka eta izan zen eguerdi partetik probak egiten aritu zenik ere.

50 bat lagunek hartu zuten parte txapelke- tan, eta guztien artean, Gorka Maiz gabiriarra izan zen garaile, 28,10 metroko jaurtiketa bikainarekin. Kontrako haizeak baldintzatuta, gutxiatik ezin izan zuen gaintitu oraindik ere Euskal Herriko markarik onena dena. 2014ko Argia Egunean ezarri zuen Inigo Uri- betxeberria azpeitiarrak: 29,60 metro.

ausolan MENU OSASUNGARRIAK
Ondo jatea...
ondo Bizitza da!

Uribarri Etorbidea, 35 · Arrasate · ☎ 943 794 611
auzolagun@ausolan.com · www.ausolan.com

Lizker
aholkulariak
asesores

Errementari Plaza, 2-3 behea
Tel: 943 71 80 52-943 71 82 06
Fax: 943 71 80 52
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
E-mail: lizker@lizker.com

Irailaren 19an ere, Argia Eguna izan zen

ARGIA EGUN BETEA irailaren 20a izan zen, baina bezperan bazegoen zeregina.

10:00etan Txirrinka, Natur Eskola eta natur taldearen eskutik Oñati inguruan bizikleta ibilaldia egin zen. Bertako naturaren berri eman zuten Natur Eskolako eta natur taldeko kideek, eta bizikletazaleek ere euren ekarpenak egin zituzten.

Bueltaxkak egarritu eta gosetu zituen eta 13:00k inguruan Gaztelekura gerturatu ziren ARGIAK prestatutako *Trantsizioak* erakusketaren irekiera ekitaldira. Euskal Herriko historia hurbilari begirada selektiboa eman dio erakusketak. Urko Apaolaza erakusketaren prestatzailearen aurkezpen hitzak entzun, historiaren puskak ikusi

eta irakurri, eta ondoren zizkamizkak sabela betetzeko.

16:30ean hamarnaka haur eta helduk Arrikruzeko kobetera bisita mitologiko gidatua egin zuten.

22:30ean Ruper Ordorika oñatiarrak kontzertua eskaini zuen Gaztelekuan. Oñatiko Udalak antolatutako kontzertuaren hasieran Argia Egunaren berri eman zitzaaien Ruper zaleei. Haietako asko gerturatu zen hurrengo eguneko ospakizunera.

Goian, Arrikruzeko kobetera bisita egin zuen taldea. Behean, naturzaleak azalpenak adi-adi entzuten, errekarri begira.



Post punk doinuak amaitzeko

Bazkariko betekada kirol saioarekin arindu ostean, dantzarako prestatu eta Perlak taldeak hartu zuen Gazteleku alboan jarritako ohol-tza. Pixkanaka baino pauso sendoz aurrera egiten ari den taldeak geldoenak ere mugiarazi zituen erritmo sendoko post punk doinuekin. Haien ondotik, bi bikotek hartu zuten erreleboa agertokian: Maria eta Manex lehenik, Aran eta Lo ondoren.

Doinu, zapore eta giro onarekin amaitu zen horrenbestez aspertzeko tarterik utzi ez zuen eguna. Gehienen ahotan, hitz bertsuak: aniztasuna, komunitatea, giro ona... Danele Sarriugartek esaterako aniztasun horretan

jarri zuen fokoa: “Oso jende diferentea dago gaur, eta hori ederra da. ARGIAra jende oso anitza hurbiltzen gara: batzuk elikadura burujabetza eta ekologismotik, beste batzuk feminismotik, kulturatik, euskaltzaletasunetik... Gaurkoa horien guztien bilgunea izan da”. Bide beretik mintzatu zen Estixu Eizagirre ere: “Argia eguna ari da pixkanaka bere izaera propioa hartzen. Oso jende desberdinak egiten du topo, eta aukera dugu lasai hitz egiteko harpidedunekin, irakurleekin, proiektuan modu batera edo bestera parte hartzen dutenekin...”.

Txikiak batu, antolatu, eragin eta gozatzea. Hori bai gauza handia. ■

ZUBILLAGA

BASERRITARRE ETORKIZUNA ETA EUSKAL HERRIAREN
ELIKADURA SUBIROTASUNA BABESTEN

Zubillaga auzoa 63, 20560 OÑATI
☎ 943782193 · Fax.: 943781512
bulegoa@zubillagahiltegia.com
www.zubillagahiltegia.com



BARATZEKO ESTREINALDI HANDIAK DATOZ

AZAROAN ESTREINAKOZ, FRUITU-DENDETAN

COL BILL VOLUME 1



BARATZEKO BESTE ESTREINALDI BATZUK

URTIARFILA Baratzean besteko: MARZOIA Barak, Tiplino APRILA Babo MARATZA Leka, Pekat, Kaldakoa ERANDA Abarjaria, Barakko piperria, Tomatea, Piperoia UZTARIA Gamikako piperria, Urtaria ABUZTUA Azokera, Barakola, Piko piperria, Erakia
IBAMA Brossak, Inkamara, Espinaka URTUA Inkamara AZARUA Kinoa URTE OGIAI Azenara, Panta, Zarka, Letuga, Aza, Errenkoko piperria, Piper txantrea, Kalkia, Erretakoa



www.baratzekoestreineldihandiak.com • www.grandesestrenosdelahuerta.com



EL GRAN LEKAOSKI



BARATZEKO BESTE ESTREINALDI HANDI BATZUK

URTIARFILA Baratzean besteko: MARZOIA Barak, Tiplino APRILA Babo MARATZA Leka, Pekat, Kaldakoa ERANDA Abarjaria, Barakko piperria, Tomatea, Piperoia UZTARIA Gamikako piperria, Urtaria ABUZTUA Azokera, Barakola, Piko piperria, Erakia
IBAMA Brossak, Inkamara, Espinaka URTUA Inkamara AZARUA Kinoa URTE OGIAI Azenara, Panta, Zarka, Letuga, Aza, Errenkoko piperria, Piper txantrea, Kalkia, Erretakoa



www.baratzekoestreineldihandiak.com • www.grandesestrenosdelahuerta.com



ESKERRIK ASKO

Donostiako Zinemaldia eta kanpaina parte hartzen ari diren
Donostiako establezimenduei:

Aitor Lasa
Lur Lan

Amaia Bretxa 12
Pantori

Bioleku
Sentido Común

Ibéricos Deluxe
Super Baratze

Estreinaldi gehiago:
baratzekoestreineldihandiak.com



MERTXE URTUZAGA OTAEGI

«Pentsatzen ez genuena etorri zen: biktima aitortu zuten Anjel»

Kanposantuko nuarbeko aldapan gora / Orduan haurrak zirenak / Zazpi pinuak zain dauzkate / Kanposantuan atek beti zabalik nuarbek. Poema gidari hartu eta abiatu gara kanposantuko Nuarbeko aldapan gora, orduan haurra zen Mertxe lagun harturik. Poetak ez dio gezurrik: kanposantuan atek beti zabalik Nuarbek.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero



Kanposantuko Nuarbera bidean gora gara, aurtuen zuen ama Mertxerekin egin nahi izango nukeen moduan.

Berandu zabilta. 88 urte egiteko bidean da gure ama, eta ez da gauza. Lehenengo, erori egin zen. Hurrena, botikak agindu zizkioten. Azkenerako, zeharo nahastu. Ez da gauza.

Esan diot, nola zinen etortzekoa, baina ez dakit zenbat entenditu didan ere.

40 urtean bera izan dugu Anjel Otaegiren memoriaren zaindaria.

Horrela izan da, bai. Anjelen ama 1980an hil zen eta harrezkero gure ama ibili da batari eta

MERTXE URTUZAGA OTAEGI

besteari egun haiek nolakoak izan ziren kontatzen. Aurretik ere gure ama beti egon zen ahizparen ondoan. Gure ama Anjelen izeba zen, baina izebatzat ez ezik, bigarren amatzat ere bazeukan, tarte askotan gure amak zaindu zuen-eta Anjel. Eta gogoratzen naiz Anjel hil behar zutela jakin zutenean gure etxera etorri eta negar eta negar egiten zuela.

Gogoratzen zara? 12 urte zenituen 1975ean.

11 urte nituen, 12 egin behar nituen urrian, baina akordatzen naiz. Anjel hil eta gu kanposantuan egon ginen arratsaldeko hiruretatik, gorputza etorri zen arte. Familiari beste inori ez zioten utzi kanposantura sartzen: izebarekin –Anjelen ama zenarekin– etorri ginen. Aldameneko neska bat –Txistu otargilearen arreba–, Urretxuko lehengusua, nire 5 urteko ahizpa txikia Idoia eta ni neu. Beti, izebarekin. Eta Garmendiaren [Artola, Otaegirekin batera hiltzera kondenatua egona] arreba ere etorri zen. Guardia zibilak, bakarrik etxekoei sartzen utzi zigun, eta horrela, dozena erdi lagun baino gehiago ez ginen izango kanposantu barruan.

Anjelen ama zuekin zen, zuen gurasoak Burgo- sen.

Bai, bada! Izeba eta gure aita eta ama-eta, bezperan joan ziren, gauean, Anjelen lagun taxizalarekin, Patxi Urangarekin; Anjelen oso laguna zen. Harekin zeuden. Izeba semearekin egon zen gau hartan, baina bost minutu baino gehiago ez. Oso gaizki pasatzen zuen, eta bueltan ekarri zuten. Hain gaizki pasatzen zuen! Anjel atxilotu zutenean ere negar, negar eta negar egiten zuen, gure etxera etorrita. Orduan, ahizpa bidaltzen zuen, gure ama. Oroitzapen horixe daukat izebarena, negar eta negar gure etxean. Amak beti esan izan du izebari –Anjelen amari– ez ziotela semea ikusten utzi; bost minutu-edo ikusi omen zuen, baina hori ez zen ikustea ere izan. Saiatu omen zen, hala ere, teman. Anjelekin egoten uzteko esaten zien, baina alferrik. Izebak askotan insistitu zuela esaten zuen gure amak, uzteko eta uzteko, baina ez. Kartzelan egoten ere ez zioten utzi. Ate handi bat, nonbait, eta handik ere kanpora. Nuarbeko apaiza ere, Iñaki Larrañaga, joan zen, Anjelek eskatu balu bezala joanda, baina hari ere ukatu egin zioten sarrera, han bertan zutela kapilaua, eta ez zioten sartzen utzi. Gure amari sartzen utzi izan baliote gauza gehiago esango zituen Anjelek, eta gauza gehiago jakingo genuen guk. Gustura ikusiko zuen gure amak Anjel, denbora askoan hazi zuen. Anjelen amak kanpora irten behar izan zuen lanera eta bigarren ama izan zuen Anjelek gure ama. Gustura ikusiko zuen... hilda

gero ere bai! Uzteko ikusten, uzteko, eta aurrena agindu omen zioten baina gero ez ikusten utzi, eta ez berarekin etortzen utzi ere. Ezer ez!

Ilundu arte ez zuten Anjel ekarri.

Hamarrak jota ailegatu zen gorputza Nuarbera, hileta-zerbitzuetako autoan. Lehenengo, ea auto hartan bertan etorri nahi zuten esan zioten gure amari. Gure amak baietz, baina azkenean ezetz. Nahi izanez gero, haien atzetik joan zitezkeela, taxian. Gure amak esaten zuen aurretik guardia zibilen hainbat auto zihoazela, hileta-zerbitzuko autoa gero, guardia zibilen auto gehiago ondoren, eta, azkenean, gure ama-eta, taxian. Abiatu omen ziren eta, abiatu eta berehalaxe, semaforo gorri batean, guardia zibilek gelditu ez edo halako maniobra bat egin zutela, gure ama-eta despistatzeko, atzetik ez joateko. Eta Burgoetik Nuarberako bide guztian ez omen zituzten ikusi. Nonbait ezkutatu, nonbait sartu, auskalo! Ama-eta arratsaldeko seietan-edo ailegatu ziren hona, eta hemen Anjelen gorputza falta. Hamarrak aldera ailegatu ziren besteak, ilunduta –jenderik egon ez zedin edo–, Anjelen gorputza zekartela. Horrela kontatzen zuen gure amak.

Zuek, kanposantuan.

Bai. Eta kanposantura bidean, guardia zibilak ilaran, bata bestearen segidan, metrotik metrora. Kanposanturaino, orde! Eta Anjel hil behar zutela esatera etorritako guardia zibiletako sarjentua bera, barrura sartu eta *fuera!*-ka hasi zen, gurekin zeuden emakumeei alde egiteko esaten hasi zitzaien. Nire ahizpak 5 urte, nik 12, beldurtuta, eta negar batean. Eta Urretxuko lehengusuak “nik eramango dut hau”, eta hartu eta eramanean zuen ahizpa txikia. Garmendiaren arrebak gogor eraso zion sarjentu hari, berak ez zuela alde egingo, zergatik alde egin behar zuen, bada! Eta Txistu zenaren arrebak ere berdin, ez zion barkatu. “Hemen baten bat hiltzen denean herri

NORTASUN AGIRIA

Mertxe Urtuzaga Otaegi (Nuarbe, 1963) Anjel Otaegi zenaren lehengusua da. 12 urte betetzera zihoan lehengusua fusilatu zutenean. Anjelen amak berak, lehenengo, eta haren ahizpa Mertxek –gure Mertxe Urtuzaga Otaegi honen amak– zaindu zuten Otaegiren memoria, kontatu zuten haren historia, haurretatik, eta hil zuten egunerainokoa. Gaur egun, gure Mertxe hauxe bera da memoria horren zaindari zintzoa. 1975ean 12 urte betetzera zihoana, 52 betetzera bidean da: 40 urte joan dira, diktadurak iraun zuena bezainbeste.



JGURRUCHA

VICTORIANO GURRUCHA
1874 - 1914
MARGARITA GURRUCHA
1874 - 1914



AZKEN HITZA

Ocaña

“Arantzazuko fraide batek egin omen zuen hilarria, eta lauburu, berriz, Anjelekin Martutenen egondako preso batzuek. Ocañara eraman zituzten gero, eta han zeudela hil zuten Anjel. Orduan egin zioten lauburu, kartzela barruan. Argazkia, berriz, betikoa da. Horixe jarri zion gure izebak oroigarrian, eta horixe zabaldu da leku guztietan”.

guztiak lagundu egiten du, eta guk ere horixe egingo dugu!”. Horrela. Barkatu egin zion, eta hementxe egon ginen. Kanposantu atariko eskaileretan jarrita pasatu genuen arratsaldea, gorputzarekin ailegatu ziren arte.

Orduantxe Anjelen hilkutxa lepoan hartu eta kanposantuko Nuarben gora.

Eta kanposantuan, gure aita ez fio nonbait, eta zinkeko hilkutxako kristala txikitu zuen. Odola besterik ez omen zen ikusten, ordea, eta guri ez zigun ikusten utzi. Horrelaxe bukatu zen arratsalde hura.

Baina, benetan, arratsalde hura ez zen orduan bukatu.

Lehenengo urtean, akordatzen naiz, grisez josita egon zen Nuarbe. Jendea menditik sartu zen. Jende asko izan zen. Gure etxean baziren argazki batzuk, garai hartakoak, baina beldurraren beldurrarekin izebak [Anjel Otaegiren ama] ezkutatu egiten zituen, eta non dauden jakiterik ez dago. Anjel hil eta berehalaxe Frantziako kazetari bat etortzen hasi zen, eta egundoko harremana egin zuen Anjelen amarekin. Urteurrenerako ere Nuarben nahi izan zuen, eta gure izebari esan zion: “Egunean ez didate pasatzen utziko, eta bezperatik joango naiz”. Eta izebaren etxean egin zuen lo. Nuarbeko sarreran bazen orduan etxe bat, diputazioa-

rena, paretan zuloak zeuzkana. Etxean sartu eta egundoko erretratuak egin zizkien grisei. Izebari eman zizkion, baina haren etxea ere bota zuten eta ezin da jakin non dauden erretratu haiek. Denak gordetzen ibiltzen zen, ezkututzen, ukuiluan eta batek daki non. “Badaezpada ere”, esaten zuen. Eta orain ezin aurkitu.

Makina bat ikurrina ere, zuek Anjelen hilobian jarritakoak, “ezin aurkitu”-an dira.

Bai, baina kasu horretan ikurrinak beste batzuek ezkutatu izan dituzte. Guk jarri, guardia zibilak etorri, eta kendu egiten zioten. Eta izebak berriz ere ipini. Garai hartan, gainera, ikurrina ez zen libre, eta etxean egiten genuen: oihala erosi eta ezkutuan josten ibiltzen ginen ama eta biok. Beti ezkutuan. Gero, etortzen zen izeba, eta berak ipintzen zizkion Anjeli ezkutuan. Bolada batean askotan kendu zioten ikurrina. Izeba egunero-egunero etortzen zen kanposantura, eta ikurrina kendu ziotela ikusten zuenean, beste bat egiten genuen amaren eta bion artean, eta izebari ematen genion, berak ipintzeko.

Irailak 27 denero berritzen da arratsalde hura.

Anjelen ama eta gurea meza ateratzen hasi ziren egun horretan Nuarben, eta harrezkero jendea biltzen da. Bada Donostiako familia bat, urterik huts egin ez duena. Bi matrimonio dira, beren umeekin. Etorri egiten dira oraindik ere. Lehengusuak ere etortzen dira, elkartzeko gara, kanposantura bisita egin, hamaiketako... Gero, Azpeitiko Udala ere etortzen hasi zen, omenaldia egiten, eta orain jende koadrila etortzen da Azpeititik, mendi buelta eginez, Nuarberaino. Anjel ez ezik, Kurro eta Pelitxo ere [1984ko Pasaiaiko segadan hildako lau lagunetarik bi, azpeitiarrak] omentzen dituzte, Gudari eguna nola izaten den. Nuarben egiten dugu dena orain, baina Azpeitira ere joanda gaude gu, omenaldia han zela eta.

Aspaldi hil zen Maria Otaegi, Anjel Otaegiren ama.

Semea hil eta bost urtera. Trafiko istripua izan zen. Arabako gazte koadrila bat euskaraz ikasten egon zen Nuarben, eta batzuk –Alizia eta Begoña, tartean– Azpeitiko saninazioak pasatzera etorri ziren. Alizia Lohisoro baserrian egondakoa zen Nuarben egon zen bitartean, eta Begoña, berriz, gure izebaren etxean bizi izandakoa. Uztaila bukaera aldera, bi emakumek izebari hots egin zioten bisita egingo ziotela esanez. Bata, Anjelekin kartzelan egondako baten ama zen; bestea, Iparraldean bizi zen emakumea. Azpeitira autobu-

sez etortzekoak ziren abuztuaren lehenengoan, eta izebak kezka izan zuen, Azpeitiko festak eta taxiak ez zituztela aurkituko. Aliziak autoa zuen, eta bere burua eskaini zuen, esanez lagunduko ziola izebari Azpeitiraino bi emakumeen bila. Eta ekarriko zituela bueltan Nuarbera. Eta emakume haiek hartu eta bueltan zetozela, istripua. Alizia eta izeba, biak hil ziren; bizirik geratu ziren beste bi emakumeak.

Maria hil zen, zuen ama izan da urte askoan Anjel Otaegiren memoriaren zaindaria. Jendaurrean, azkenetakoa, 2012an Eusko Jaurlaritzak Otaegi biktimatzat aitortu zuenean.

Ustekabea izan zen, eta kristoren poza. Pena, eta lehenengo gauza esan genuena, izebak hori ez ezagutzea. Nahiko zuen. Urte pila pasatu da, eta pentsatzen ez genuena etorri zen: biktima aitortu zuten Anjel. Garai batean sinistu ere ez, esan baligute. Gustura geratu ginen. Jaurlaritzak biktima aitortu zuen, baina Espainiakoak ez, hala ere. Espainiakoak ez du behin ere Anjel biktimatzat hartuko. Ez zait iruditzen. Ez Txiki, ez Otaegi eta ez inor. Horientzat terrorista izango dira beti. Nik hala uste dut. Anjelek ez zuen inor hil, berak hala esaten zuen, eta hil behar zuen gauean ere hala esan zion gure amari, berak ez zuela inor hil.

Zuen ama Mertxe Otaegik adin handia, ez da gurekin egoteko gauza izan.

Hasieran bai, kazetariekin eta denekin hitz egiten zuen amak, kontatu egiten zien, baina edadean aurrera eta nekatzen hasi zen. Orduan, neu hasi nintzen laguntzen. Jaurlaritzak Anjel biktimatzat hartu zuenean ere, joan zen, eta Idoiak eta biok eta iloba Janirek lagundu genion, baina hitz egin-eta gure amak ez zuen nahi. Gainera, ate bat ireki eta areto batera sartu eta sustoa izan zen, argazki-kameren zarata etengabe hori-eta. Gustura egon zen gure ama, hala ere, Txikiren amarekin eta beste batzuekin. Baina ez zuen askorik nahi. Orain, berriz, buruak ez dio laguntzen.

Zeu zaitugu orain Anjelen memoriaren zaindaria.

Bai. Oraintxe ari zitzaidan Janire, iloba, horixe esaten: “Hurrena neu izango naiz kontatu beharko dudana!”. Esan diot: “Bai, hasi zeu ere gauzak gogoan hartzen”. Gure amak beti kontatu ditu egun haietan pasatu zirenak. Guri, eta ilobei ere bai. Edade jakin batera ailegatu direnean, kontatu egin diegu. Eta urtean-urtean egin izan diren omenaldietan ere beti izan dira ilobak. Badakite nola izan zen gauza, ez diegu ezkutatu. ■



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com



KOLDO TELLITU

IKASTOLEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Ziurgabetasuna aukera bihurtu behar dugu, elkarrekin gure hezkuntza sistema eraikitzeko»

Usurbilgo Udarregi ikastolak antolatuta, urriaren 4an ospatuko da Kilometroak jaia. Aitzakia baliatu eta LOMCE legeaz, ikasturteko erronkez, Nafarroako egoera berriaz, eredu pedagogikoaz eta beste hainbat kontuz aritu gara Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakariarekin.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Espainiako Gobernuaren LOMCE legea batetik, Eusko Jaurlaritzaren Heziberri plana bestetik. Nola hasi duzue ikasturtea?

Ziurgabetasuna da aurtengo ezaugarri nagusia, ikasturte hasieran behintzat. LOMCE indarrean dago eta aplikatu behar da, baina bistan da aukerak daudela legea bertan behera geratzeko edo gutxienez bere elementurik ezkorrenak ez aplikatzeko, eta Espainiako hauteskundeak ere berehala dira. Ziurgabetasun hori aukera bihurtu behar dugu, hezkuntza eta herri eragileek elkarrekin hezkuntza sistema propioa eraikitzeko eta lan hori guztia lege bihurtzeko, ahal dugun parlamentuetan.

Baina LOMCE aplikatzen ari zarete?

LOMCE legearen zutabe nagusiak bi dira: batetik, eurek ezarritako curriculuma, eta arlo horretan guk euskal curriculuma lantzen dugu, Eki ikasmaterialen bidez. Bestetik, ebaluaketa probak daude; iaz proba pilotua bi ikastoletan planteatu zuen administrazioak eta bi ikastoletan uko egin zioten azterketa egiteari. Lehen Hezkuntzaren erdialdean ebaluaketa diagnostikoa egitea ongi iruditzen zaigu, baina ez dugu inolaz ere bat egiten LOMCEren planteamendurekin, ebaluaketa diagnostiko batek guretzat izan behar dituen

helburuak eta LOMCErenak ezberdinak direlako. Beraz, legearen gauza batzuk derri-gor aplikatu beharko dira, baina arlo curriculumarrean, geletan eta gure egunerokoan ikastolen apustua euskal curriculuma da eta hala jarraituko dugu.

Espainiako hauteskundeak aipatu dituzu. Horien emaitza gakoa izango da LOMCEren ebaluaketa edo errebalidak behingoz bertan behera uzteko.

Bai eta badirudi gerta daitekeela, hori da gure esperantza, baina ezin jakin, ez daukat etorkizuna iragartzeko bola magikorik. Edozein kasutan, guk gure bidea jarraituko dugu, orain arte bezala lanean, LOMCE egon edo ez egon, lege hau gehiegi ari delako baldintzatzen gure herriko hezkuntza eragileen agenda.

Nafarroako Gobernuak aldatu berri dute hauteskundeak, baita udal nafar ugaritako egoera ere. Nola eragingo die honek bertako ikastolei?

Esperantza handia daukagu gobernu berriarekin, aurrekoarekiko jarrera aldatuta sekulakoa da eta aldatuta batzuk ezinbestean emango direla uste dugu, eta espero dugu epe motzean izango dela. Adibidez, IkasElkar-en bitartez dugun materiala ez dadila debekatua egon Nafarroako ikastetxeetan, ez dezala jarraitu doakotasun programatik at, badakigulako zein argudio erabili zituen aurreko gobernuak horretarako, testuliburu horietan egiten zen Euskal Herriaren planteamendua hizpide. Aldi berean, zonifikazioa apurtu behar dela uste dugu, euskarak ofiziala izan behar du Nafarroako lurralde

“LOMCE gehiegi ari da baldintzatzen gure herriko hezkuntza-eragileen agenda. Guk gure bidea jarraituko dugu”



Etokizunera begira mahai gainean dauden eztabaida nagusiak zerrendatu dizkigu Tellituk: "Euskararen ardazturiko eleaniztasuna bultzatzea; euskal curriculuma; irakasleriaren funtzioa, prestakuntza eta lan baldintzak; ikasleen errendimendua hobetzea; eta hezkuntza zerbitzu publikoaren definizioa".

guztietan eta aukera eman behar da ikasketak euskaraz egiteko. Itxaropena daukagu egungo eremu ez-euskaldunean dauden ikastolek behar duten laguntza eta aitortza jasoko dutela. D eredu publikoa ez dagoen lekuetan, modu orekatu eta planifikatuan egin behar da euskarazko irakaskuntzaren zabalkuntza, herri eta hezkuntza eragile guztien artean.

Jose Luis Mendoza Nafarroako Hezkuntza kontseilariak esan du publikifikatzeko aukera emango diela eremu ez-euskalduneko ikastolei.

Gure planteamendua ez da hori, inondik inora. Gure eremuan sinesten dugu, uste dugu hezkuntza alorrean aukera ezberdinak daudela eta gurea egokia dela. Nafarroan egindako lana herri-lana izan da eta eredu hori oraindik ere oso garrantzitsua da euskal hezkuntza aurrera eramateko.

Ipar Euskal Herrian aldiz, zaharrak berri. Ziburuko Kaskarotenea ikastolak gutxienez eraikin berrian hasi du ikasturtea. Herritarren presioak lagunduko du Seaskaren egoera hobetzen?

Euskal Herriko eragile guztien elkar-tasuna eta inplikazioa beharrezkoa da. Apustu izugarria da Iparraldean egindakoa eta fruitu onak ematen ari da

gainera, Baxoaren emaitzei erreparatzen badiegu adibidez. Euskarazko hezkuntza normalizatu nahi badugu, Seaska indartsu bat izatea funtsezkoa da eta horretarako guztien laguntza behar dugu. Dei berezia egin diegu erakundeei gai honetan askoz gehiago inplikatzeko, sarri aitortza eta elkartasuna adierazten entzuten diegulako instituzio publikoetako ordezkariari, baina azken urteotan, benetako laguntza oso eskasa izan da, ditugun premietatik oso urrun. Herritarrek badakigu erantzungo dutela, ikastolek ere elkartasun funtsaren bidez egingo dute, baina hirugarren hanka ere behar dugu, proiektua aurrera eramateko.

Gonzalo Camarón
bitxidenda
erlojudenda

Kale Nagusia, 11
Azkoitia (Gipuzkoa)
☎ 943 852 493
Faxa: 943 852 493

Intxausti
harategia · urdaitegia

Juan Martin Intxausti

Grupo La Salve, 33
Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943 810 489 / 687 527 664

KOLDO TELLITU

Eta Euskal Autonomia Erkidegoan berriz, Eusko Jaurlaritzak prestatuko duen Euskal Eskolaren Legea izango da hurrengo erronka nagusietakoa, sare publikoaz gain sare kontzertatua ere legean txertatzeko xedez.

Ezinbesteko legea da, momentu honetan daukagun lege bakarrak [1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak] hezkuntza sistemen erdia baino ez duelako arautzen, sare publikoa alegia, eta sistema osoa arautuko duen legea beharrezkoa da, osasungintzan, merkatugintzan eta beste hainbat esparrutan bezalatsu. Lege bat egiten denean epe ertain eta luzerako helburuak mahai gainean jartzen dira, horiek eztabaidatzeko aukera dute eragileek, eta horretarako une oso egokia dela uste dut. Eztabaida nagusiak zeintzuk diren badakigu: euskararen ardazturiko eleaniztasuna bultzatzea; euskal curriculum-a; irakasleriaren funtzioa, prestakuntza eta lan baldintzak; ikasleen errendimendua hobetzea; eta hezkuntza zerbitzu publikoaren definizioa. Azken horrek sortuko du eztabaida gehien.

“Nafarroako eremu ez-euskaldunetan ikastolak publikatzea ez da gure planteamendua, inondik inora. Gure eredia oraindik oso garrantzitsua da euskal hezkuntza aurrera eramateko”

Hain juxtu, eskola publikoak dio eurak baino ez direla publiko, eta lehentasuna izan beharko luketela. Zuek aldiz, publikotasunaren kontzeptua birdefinitu behar dela.

Publikotasuna zerbitzuari lotuta ulertzen dugu guk, herriari ematen zaion zerbitzuari lotuta. Publikotasuna titulartasunari lotzea eredu jakobino eta atzerakoia iruditzen zaigu, Frantziatik eta Espainiatik datorrena, eta guk geure eredia landu behar dugu. Argi dugu zerbitzu publiko hori administrazioaren kontrolpean egongo litzatekeela, baina horren barruan eragileek kudeaketa modu ezberdinetarako aukera izan beharko lukete.

Denontzako legea eginez gero, kudeaketa horri begira sare publiko eta kontzertatuarentzako joko arauak berdinu beharko liratekeela dio eskola publikoak, eta behar bereziak dituzten haurrak (Euskal Herrira iritsi berriak direlako, ezgaitasunen bat dutelako...) modu orekatuagoan hartu beharko lituzketela ikastetxeek, gehientsuenak sare publikoan kontzertatzen direlako.



Juantxo TABERNA

Ogitarteko eta pintxo bero eta hotzetan espezializatua

Enbeltran kalea, 6 · 20003 DONOSTIA · 943 427 405



UZTARRI
JATETXEA

janari tradizionala

© 943 148 321 · Aizarnazabal
www.uztarrijatetxea.com



ERBI BUS

MICROBUS EGOKITUAK 19 plazatik 43 plazetara
Txangoak, bodak, bidaiak, sagardotegiak...

Egiburuberrri poligonoa 13, OV lokala
Orereta - Errenteria
Tel: 943 008 579 - 656 704 021
www.erbiautobusak.com / info@erbiautobusak.com

Bat gatoz horrekin. Zerbitzu publikoaren oinarri nagusietakoa gardentasuna izan behar da eta erabiltzen diren funts publiko guztiak non eta nola erabiltzen diren azaldu behar da. Eta ikasleen harrerari dagokionean, oraindik ere eztabaida sakon bat behar da horren inguruko planteamendua zein den jakiteko. Gaur egun ikusten dugu era oso desorekatuan egiten dela bai sare kontzertatuan, bai publikoan eta bai herrialdearen arabera. Administrazioak plangintza definitu behar du, baina herriaren apustua hori baldin bada, ezinbestean sartu behar gara eta hartu beharreko erabakiak hartuko ditugu. Hizkuntzaren ikuspegitik ere, gainera, apustu inportantea da.

“Elikadura burujabetzan oinarritutako proiektu oso interesgarriak dituzte martxan hainbat ikastolatan, ekoizle txikiekin lanean, eguneko produktuekin... Umeen heziketa integralaren barruan funtsezko arloa da”

Eki testuliburuak aipatu dituzu lehen, zuen proiektu pedagogikoaren funtsa. Zeintzuk dira Ekiren oinarriak?

Ikasleak bizitzarako behar dituen gaitasunak eskuratzeko ikasmaterial berria eta berritzailea da. Eki akronimoak bere baitan biltzen

ditu ezaugarri nagusiak: Euskal curriculumaren garapenean oinarritua, Konpetentzietan ardaztua, eta Integrazioaren pedagogia lagun (alegia, egoera-arazo bat konpontzeko eta bizitzan erabili ahal izateko baliabideak mugitzen ikastea). Azken urteotan hau izan da gure erronka nagusia, euskal curriculum diseinatu eta ikasliburu bihurtzea. Aurtent salto nabarmena emango dugu: Eki euskarri digitalean landuko dute 38-39 ikastolatan. Urteetarako erronka da eta hau horrekin jarraituko dugu.

Eskola jangeletako catering sistema utzi eta ikastetxeak berak kudeatutako jangela batzuen berri izan dugu, ikasleei inguru-

eta garaiko produktuak eskaintzea helburu. Ba al du horren gaineko lan-ildorik Ikastolen Elkarteak?

Printzipioz ikastola bakoitzak askatasuna du nahiago duen eredia erabakitzeko eta egia da elikadura burujabetzan oinarritutako proiektu oso interesgarriak dituztela martxan hainbat ikastolatan, ekoizle txikiekin lanean, eguneko produktuekin, jakiak bertan



Irvin Sagardotegia

Petrirtza bidea 12. Zubileta 617.300.680

Jatetxea - Restaurante
NICOLASA



*Txangurroa labean eta arraia plantxan
Eguneko menua eta bereziak*

© 943 515 469
Donibane, 59 · Pasai Donibane (Gipuzkoa)



B R A N K A

Kontxako olatuen gainean, Haize Orrazearen ondoan, bertako produktuenganako arreta bereziarekin

Urte osoan
menu berezia **36 €**

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia
© 943 317 096 · Faxes: 943 214 890 · branka@branka-tenis.com
www.branka-tenis.com

KOLDO TELLITU

“Sare publikoa eta kontzertatua ezin gara aritu bakoitza bere aldetik, eztabaida sakonerako fororik eta elkargunerik bilatu gabe. Denon iritzia eta marra gorriak partekatu beharko ditugu, hezkuntza sistema propioa eraiki nahi badugu”

prestatuta... Aukera hauek lana eta ardura eskatzen dute, halako egitasmoak kudeatzea ez delako beti erraza, baina umeen heziketa integralaren barruan arlo hau kontuan hartzea funtsezkoa dela ere uste dugu, eta askoz osasuntsuagoa eta aberatsagoa dela. Ni lehendakari naizen ikastolan adibidez, Leioako Betiko Ikastolan, eredu horren alde egin dugu, nahiz eta ez den erraza egunero 700 laguni jaten ematea.

Ebaluazio hezigarria lantzen ari diren lau ikastolari buruzko erreportajea atera dugu duela gutxi ARGIAN, ohiko notak alboratu eta ikasle eta irakasleak elkarrekin ebaluatzearen eta

autoebaluatzearen inguruan. Ebaluazio modu berri baterantz egin nahiko zenukete?

Lau ikastola hauetan burututako proiektu pilotua emaitza oso onak ematen ari da. Ebaluazio diagnostikoek horrelako proiektuak martxan jartzeko balio digute, ikastolaren erradiografia eginez eta izan ditzakeen ahulguneak eta indarguneak antzemanez. Planarekin jarraitzeko eta beste ikastola batzuetara zabaltzeko asmoa daukagu, oso pozik gaude-lako ikusitakoarekin.

Kilometroak jaia Usurbilen egingo da aurten eta hiru oinarri izango ditu ibilbideak: parekidea, integratzailea eta anitza izango da.

Batez ere prozesua da azpimarratzekoa, herriko eragileekin eta arlo jakin horietan dabilzan erakundeekin auzolanean egin delako. Azken finean ikastolaren funtsa hori da, herriarekin bat egitea. Integrazioari eta mugikortasunari lotutako dekalogoia idatzi dute adibidez, elkarlanean, ibilbidea ere egokituz... Hurrengo edizioetarako erreferente izan nahi du.

Zein harreman izan nahi duzue administrazioarekin eta sare publikoarekin?

Ona. Elkarlanerako prest gaude beti, administrazioekin eta hezkuntza eragile guztie-

URPA
autobusak

22, 28, 31, 55 eta 60
plazakoak

Autobus literadunak
Europar zehar ibiltzeko



Ubilluts auzoa, 55. poligonoa, 9.eraikina-4. · 20140 Andoain
Tel.: 943 305050 Faxa: 943 305060
www.autocaresurpa.com · info@autocaresurpa.com

Ongi Etorri
Jatetxea

© 943 150 869
Salbe Auzunea, 21
Azpeitia (Gipuzkoa)
ongietorrijatetxea@hotmail.com



ILLUMBE-GOIKOA
Txoko Alde · Illumbe baserria 42
20170 USURBIL
☎ 943 361 436 / 666 884 901
anaginaga@hotmail.com

g!UNK
KILOMETROAK 2015 USURBIL



Usurbilgo Udala



Usurbilen ospatuko den Kilometroak jaia parekidea, integratzailea eta anitza izango da, "herriko eragileekin eta arlo jakin horietan dabiltzanekin auzolanean egina". Irudian, Udarregi ikastolako haurrekin inklusibitatea lantzen.

kin, zer esanik ez une hauetan, apustu nagusi batzuen aurrean baikaude. Legearen hari-ra lehen aipatu dugu hainbat kontu ditugula eztabaidatzeko, eta horretara ipini behar gara lehenbailehen. Ezin gara aritu bakoitza bere aldetik, esaterako publikotasunaz pentsatzen duguna medioetan edo dena delakotan botatzen, eztabaida sakonerako fororik eta elkargunerik bilatu gabe. Gainera, elementu askotan bat egiten dugu eta beste batzuetan ezberdintasunak ditugu, baina denon iritziak eta marra gorriak partekatu beharko ditugu, hezkuntza sistema propioa eraiki nahi badugu.

Euskal Herri osorako sistema propioa, beraz, eskuragarria da? Zein da bidea?

Momentu hauetan, hein batean horretan ari gara, euskal curriculumaren bitartez, euskara ardatz duen planteamendu eleanitzaren bitartez... Egunerokoan, geletan horretan ari gara, baina egia da horri guztiari aitortza eta babesa emango dion marko legala lor-

tzea dela orain behar duguna. Uste dugu Hego Euskal Herrian dauden bi gobernuek bat egin dezaketela horretan, Iparraldean zailagoa da... Eta esandakoa, egunerokoan gure ikasleek jasotzen dutena ez dago urrun Euskal Herri libre batean jasoko luketenarekiko. ■

USURBILGO HORTZ KLINIKA
 FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
 ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 Mediku - Odontologoak
 Kale Nagusia, 10 - 1.ºC- 4
 20170 Usurbil · ☎ 943 37 08 78

Gabriele Schwab
 ITZULPEN ZERBITZUA

☎ 943 371 145 · gabi@tradu.euskalnet.net
 Erdiko Kalea, 10 - 3. ezk. · Usurbil (Gipuzkoa)

IBARROLA BEHEKOA BASERRIA
 LAURGAIN AUZOA · PAGOETAKO NATURA PARKEA
 20809 AIA
 ☎ 943 83 45 49 / 659 21 53 92 · ibarrolabehekoa@hotmail.com
 www.nekatur.net/ibarrolabehekoa



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Red-washing inperialismoaren zerbitzura

TWITTERREKO ERICH HONECKEREN *alter egoak* ironiaz txiokatu zuen ezin daitekeela ukatu AEBek zorte handia dutela, herrialde etsaien zerrenda bat egin eta hortxe sortzen dira defendatu beharreko “iraultzak” edo erasotu beharreko “terroristak”. Batzuetan zoria hain dute aldekoa, ezen “ustekabeen” beren lagunek estatu kolpe bat ematea lortzen dutela, edo kasu okerrean, goizetik gauera ejertzito bat muntatu eta gerra zibil bat egiteko gaitasuna garatzen dutela. Irabazterik ez badute Osaba Samen komodina dute garaipena eskuratzeko: NATOren bonbaketak. Behin herrialdea suntsituta eta AEBetako lagunaren esku dagoela, berreraiki behar izaten da. Negozioa borobila da Mendebaldeko enpresentzat, lehengaien ustiaketaren kontrola hartu eta berreraikuntza lanen enkargua jasotzen dute ekonomia kontrolatzeko. Guzti horrek prezio bat du, Mendebaldeko sektore finantzarioak jarriko duena, zorrik ez zegoen lekuan zorra sortzen da eta haizea hartzen du kolonizazio ekonomikoak. Arazoa da “askatasunaren aldeko borrokalariak” (sic) muturreko ideologia islamista izan ohi dutela, baina tira hor ere negozioa egon daiteke, ez dago hain gaizki suntsiketa, pobrezia eta beldurra zabalduko badiutuzte menderatu eta kolonizatu beharrezko lurraldeetan.

Inuzentekeriagatik edo fede txarragatik Mendebaldeko “ezker erradikaleko” sektore batzuek Libiako eta Siriako errebeldeak itsuki babestu dituzte. Antza, munduko gainontzeko herrialdeetako injustiziek ez zuten beraien atentzioa merezi, bakarrik soberania altuko eta erlatiboki justizia sozial handiko herrialdeen bidegabekeriak interesatzen zitzaizkien

Zoria baino, sinesgaitza dena da batzuen itsutasuna. Youtuben 2006tik aurrera Wesley Clark jeneralak emaniko hitzaldi eta elkarrizketetan entzun daiteke zein izan den plana 2001etik: “Zazpi herrialde hartu behar ditugu bost urtetan”

errepikatu zuen jeneralak. Horien artean Irak, Libia eta Siria. Ordutik gauza asko pasatu dira, besteak beste, NATOk Libia bonbardatu zuen, Qatarrek ofizialki onartu zuen bere ehunka soldadu egon zirela errebeldeen alde borrokan Libian, Kadafi Kolonbiako gaztelania hitz egiten zuten batzuek erail zuten eta Turkiak, Mendebaldeak eta Arabiar Penintsulako estatuak subentzionatu eta armatu dituzte Siriako errebeldeak, hauen artean gehiengo muturreko islamistak. Beste behin, Mendebaldeak Al Qaedaen hazia erein zuen bezala (Hillary Clintonek aitortua), orain ISISena (Estatu Islamikoa) erein du.

Bitartean, inuzentekeriagatik edo fede txarragatik Mendebaldeko “ezker erradikaleko” sektore batzuek Libiako eta Siriako errebeldeak itsuki babestu dituzte. Antza, munduko gainontzeko herrialdeetako injustiziek ez zuten beraien atentzioa merezi, bakarrik soberania altuko eta erlatiboki justizia sozial handiko herrialdeen bidegabekeriak interesatzen zitzaizkien. Baina, jakin bazekiten beraien artikuluek eta manifestuek ez zutela Libiako eta Siriako gobernuen jarretan eragingo, orduan, zein zen beraien funtzio kontzientea edo inkontzientea? Gure gizartean Mendebaldeko inperialismoaren esku-hartzeak justifikatzeko (edo hauen kontrako kritikak apaltzeko) baldintzak sortzea, gobernu batzuk demonizatuz eta oposizioak idealizatuz. Bestela esanda, inperialismoari aurpegia garbitzen zaio “ezker erradikaleko” diskurtso bat erabiliz: *Red-washing*.

Behin herrialdeak konkistatuak izan ondoren, ezker mendebaldar zaleak interesa galdu egiten du herrialde horiekiko. Adibidez, egun Libia infernu bat da 2010ekoarekin alderatuta, baina “progrekomunista” gehienei bost axola zaie. Orain jostailu berri bat dute: errefuxiatuak. Asilorako eskubidea defendatuz kontzientziak lasaituko dituzte. Kontua da errefuxiatuak ez direla fenomeno natural bat, zergati inperialista batek esplikatu du beraien ihesa eta honetan ere, galtzaileak jatorrizko herrialdeak izango dira burmuin hoberenak galduz herrialde aberatsen mesedetan. ■

HIRE HERRIA MAITE BARDIN BADUNK
NAHIKO HUKERAHALIK ETA HOBETIKENIK EGOTEA,
EHUNEKO EHUN BERE GAIN,

KATALUNIARRAK KONTENT DAUDENK
LIBERTATEAREN BEZPEREAN

ESPAINIARRAK EZ,
HAIEK JADA
INDEPENDENTE
DIRELAKO

ORTUZAR EZ OMEN ZAGONK
KATALUNIAREN BEKAIZTI

ESPAINARRA DELAKO?
BERE HERRIA MAITE EZ DUELAKO?
ESKLABU ALEGERA DELAKO?
BARTZELONAK EZ DIOLAKO,
SOLDATA GOZORIK BERMATU?

Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Badator Joxemiel Bidador, badoa urte ilunen aroa

IAZKO MAIATZEAN plazaratu zen asmoa, noiz eta Nafarroara aldaketa ekarri duten hauteskundeak egiteko urtebetea falta zenean; zer eta Joxemiel Bidador zena- ren omenez Iruñean pastoral bat egiteko ideia, alegia. Bidadorrek arlo aunitzetan utzi zuen bere isuria, bere ekarpen handia, eta hain zuzen ere, Arrotxapeko semearen izaera zabal, euskaltzale, sortzaile, bizizale eta lagunzale hori gogoan hartzea izan da pastoralak sortzeko arrazoietakoa bat, eta Bidadorren bitartez, Iruñeko jende euskalduna omentzea, hala egungoa nola iraganeko- koa, ez baita batere gozoa izan Hiri Buruzagian bizitzea. Izan ere, iruindar euskaldun- nek gogor pairatu dute agin- tean egon direnen jarrera itxia eta setatia, tartean gure Bida- dorrek berak. Bada, orain amaitu berri den egoera latz hori bere gordinean ageri da

deskribatuta Jon Alonso idazle iruindarrak maisuki idatzi duen testuan, bertan erraten diren gauza batzuk hamaika aldiz entzun baititugu orain arteko agintarien aho-mihietan.

Pastoralak, halaber, aurreko belaunaldietako jende euskaltzalea hartu nahi izan du gogoan, egungo egoe- rarra iristeko ahalegindu zen jendea, eta hori ere ederki

Pastoralak jende euskaltzalea hartu du gogoan, egungo egoerara iristeko ahalegindu zen jendea, hori ederki moldatu du pastoralgileak, bat eginez Bidadorrek iraganeko euskal idazle ezezagunak ahanzturatik erauzteko ahalegin baliosarekin

moldatu du pastoralgileak paperean, bat eginez Bida- dorrek iraganeko euskal idazle ezezagunak ahanztura- tik erauzteko ahalegin baliosarekin. Ez alferrik, iraga- nean ere jende sortzaile euskalduna bizi izan baita, eta beharbada, batzuetan ez diogu horri gehiegi errepara- tu, euskararen atzerakada mingarriak eta Mendigatxa sindromeak behin baino gehiagotan gogoa ilundurik.

Euskal sortzaile oparoak iraganen, eta sortzaile nekagaitzak egun, Iruñean bertan, pastoralaren ekime- nak arras ongi erakutsi digun moduan, ehun inguru, bakoitza bere egitekoan, eskuzabaltasun osoz. Ihitz Iriart zuberotarrak eta Aritz Ibañez iruindarrak, konpara- zio batera, soineko ezin ede- rragoa jantzi diote testuaren edukiari; soineko airoa, berria, koloretsua, bizia, bihotza hunkitzerainokoa.

Jende asko izanen da horren lekuko heldu den urriaren 10eko emanaldian. Badakigu, ikuskizunetan tarte zabala izanik ere, ez direla urte ilunetako agintariak hurbildu- ko, baina ez legoke gaizki, eta jakinen genuke ea berresten ote dituzten orain arte erran dituztenak, edo euskararen inguruko mezua aldatzen hasi ote diren, baten bati antzematen hasi zaion gisan. ■

EIDER MADINA



Oihana Etxebarrieta



KAZETARIA

Badator martxa

MARTXAN ETA DANTZAN ibili gara uda guz- tian zehar, jai batetik bestera, batean buru- berokiak jarrita, bestean jaietako alkandora jantzita eta hurrengoan zapi koloretsu eta txilibitua hartuta. Jaiak bizi izan ditugu, batzuetan pixka bat sufritu, eta hementxe gaude, irailean, errutinara berriz moldatzen ahalegintzen.

Baina martxa ez da amaitu, martxa hel- tzear da. Martxoaren 6an hasi zuen bere bidea Kurdistanen, eta Euskal Herrira helduko da hil amaieran. Kurdistanen jai giroan hasi genuen martxa, pozarren

ginen haiekin batera Emakumeen Mundu Martxa ospatzen. Irailaren 28tik urriaren 4 arte gure herriko txokoetan furgoneta more bat geldituko da eta Martxak sor- tzen duen zirrarak errazagoa egingo du gure kurtso hasierako igoera maldatsua.

Pentsa ezazue, munduko hainbat txokota- tik Euskal Herrira begira egongo dira eta emakumeen eskubideak aldarrikatuz egingo dugun ekintza guzti horietan guaien indar eta ondare guztiarekin egingo dugula aurrera, gure alea jarriz ondorengoentzako. Zer ede- rrago kurtsoa hasteko? Badator Martxa. ■



Endika Alabort Amundarain

◆ EKONOMIALARIA ETA PRIMERO DE MAYO-KO AHOLKULARIA

Txina: wēijī gora, wēijī behera

EUROPAN KRISI EKONOMIKOA amaitzear zegoela zirudien. *Bloomberg*, *The Economist* eta *Wall Street Journal*ek abuztuaren 24an, Txinako burtsa jardunaldiaren ostean, titularretara mundu mailako atzeraldi globalaren mamua eraman dute: Txinaren “astelehen beltza” izendatu dute.

Asiako herrialde handi hori jasaten ari den finantza *crash* hau azaltzeko, Txinako Gobernuaren zenbait erabaki kontuan izan behar dira. Alde batetik, azpiegitura eta etxebizitza arloan sustatutako inbertsioak, hamaika zero dituen diru kantitatea bideratuz eta espekulazio izugarria sustatuz. Higiezinaren gaineko presio hori lasaitzeko, exekutiboak orain dela hiru urte burtsa arloan partikularren parte-hartze politikak bultzatu zituen. Horrela uler daiteke nola 2014ko ekainaren eta 2015eko hilabete berberaren artean, merkatuen balioa %150 handitu izana; 2015eko lehe-

nengo seihilekoa hartuta soilik, %60. Higiezinaren eta azpiegituren burbuilak zulatu zirenean, diru hori finantza mundura berbideratu zen, uda honetan burbuila hau zulatu den arte. Elkar loturik dauden hiru burbuilen aurrean gaude.

Prozesu honen gakoa ekonomiaren finantziazioa da, hots, finantza ekonomiaren lehentasuna beste sektoreen aurrean jartzea (nekazaritza, industria...). Ekonomia “errealaren” hazkundera motelduenez, finantzak erabili dira hazkunde tasa altuak apaintzeko, estatu guztiak erabiltzen duten iruzurra. Esportazioak murrizten diren epe berean, azpiegitura eta higiezinaren burbuilak inbertsio indartsua eskatu du, baina bi burbuila horiek eztanda egin ondoren, diru hori burtsara joan da irabazi-tasa handien bila. Horrek azaltzen du 2014-2015eko Txinako burtsen hazkundera.

Hala ere, Gobernuak ekonomia bere bidean mantentzeko erremintak ditu; interes tasak oraindik altuak dira eta badirudi beren ekonomiaren barne oreka bilatzen duen politika ekonomikoarekin jarraituko duela. Galdetu dezakegu ea normala ote den hazkunde ekonomikoak amaierarik ez izatea edota zeintzuk izan behar diren langileen lan baldintzak hazkunde helburu zehatzak lortzeko.

Argi dagoena da arazo bat suertatzekotan, ondorio bortitzena ez dela Txinan jasango. Mundu ekonomiak jada nabaritu ditu ondorio horiek, gogorren hartu dutenek lehengai esportatzaileak izanik, Txinan hazkunde ekonomikoa ahuldu denean, honen inportazioak murriztu baitira eta finantziazioa sakondu. Kapitalismo global honetan, Txinaren arazo batek beste herrialde bat hondora dezake. ■

Prozesu honen gakoa ekonomiaren finantziazioa da, hots, finantza ekonomiaren lehentasuna beste sektoreen aurrean jartzea (nekazaritza, industria...). Ekonomia “errealaren” hazkundera motelduenez, finantzak erabili dira hazkunde tasa altuak apaintzeko, estatu guztiak erabiltzen duten iruzurra

[f]arina

Urbina kalea, 5 · (Molinuevo Parkea) · Vitoria-Gasteiz ARABA
☎ 945 06 95 81 · info@farinarestaurante.com

Etxekoa,
ekologikoa...



MUSIKA IRIZPIDEAK EITB-TIK KANPOKO IRRATIETAN

Gaztearen faltan, librea

Gazteak norabidea aldatu eta irrati formula komertzialen bidea hautatu zuenetik, ez dago euskal eszena bere aniztasunean erakutsiko duen irrati kate publikorik. Saio bakan batzuetan salbu, *easy-listening*etik aldentzen diren taldeek toki gutxi dute uhinetan. Irrati libreak edo herri ekimenetik sortuak dira, askotan, gisa horretako taldeen bozgorailu bakar. Zein irizpideri erreparatzen diote irrati horiek musika ildo hautatzerakoan?

| KEPA MATXAIN |

IZEN LABURDURA hutsa baino zerbait gehiago gertatu zen 2006an, Euskadi Gaztea zena Gaztea huts bilakatzean. Entzule datuak jaitsi antzean sumatuta –50.000 lagun inguruk entzuten zuten orduan–, eredu errotik aldatzea erabaki zuten, audientzia erdigunean jarrita. Orduetik, ohiko irrati formula komertzial batera gerturatu da pixkanaka, eta, egun, bi hatz aski dira 40 Principales bezalako kate batekin dituen desberdinasunak kontatzeko: euskarazko kantuei diskriminazio positiboa egiten dietela –bostetik bat da, gutxi gorabehera, kantu euskalduna–, eta esatariak euskaraz aritzen direla. Baina nolako euskara erabiltzen duten ere auzitan da aspaldidanik. Gazteen arteko hizkera ez-formala sortzeko laborategi interesgarria izan zitekeelakoan, Kike Amonarrizekin eta Joserra Garziarekin elkarlanean hasi ziren 2004an. Izena laburtzearekin bat eten zen elkarlan hura, ordea. Geroztik, entzule erdaldunengana ere iritsi nahia nabarmendu izan dute behin baino gehiagotan katearen zuzendaritzako kideek.

Ez dago euskal eszenaren argazki osatu bat erakusten duen irratiarik, horretarako tresna eraginkorrena izan zitekeenak helburuz aldatu zuenez gero. *Easy-listening*etik kanpoko doinuek ez dute tokirik Gaztean, ez bada B aldea saioan –esanguratsua izena; gainontzekoa A aldea den seinale–. Mikel Makalak aldarrikatu modura euskarazko Radio 3 gisakorik plazaratzen ez bada behintzat, oraingo, belarrira lehen kolpean sartzen ez den euskal musikak toki txikia izango du uhinetan. Irrati publikoko saio bakan batzuk salbu –uztailean desagertu zen

Musikatea, Portobello, B aldea eta La Jungla Sonora aipatu dituzte elkarrizketatuek–, irrati libreak edota herri ekimenetik sortuak soilik geratzen zaizkie formula komertzialetatik urruntzen diren musikariei. Baina nola bizi dute musika gisa horretako irratietan? Zilegi al da irrati publikoen gabeziak osa ditzaten eskatzea? Zein irizpideri erreparatzen diote kantuen ildo hautatzerakoan? Antxeta, Hala Bedi eta Info7ko kasuei buruz mintzatu dira Aitziber Zapirain, Jon Aranburu, Ion Etxebarria eta Maite Bidarte, bakoitza beretik.

Publikoak baino iristerrazagoak

Bidartek uste du herri ekimenetik sortutako irratiek ezin dituztela irrati publikoen hutsu-neak bete, ez arlo informatiboan, ez eta musikaren esparruan ere. “Ez da soilik faktore ekonomikoa, kapital humanoak ere garrantzi handia du. 24 orduz musika taxuz programatzeak esan nahi du gutxienez pertsona batek horretan aritu behar duela, eta, tamalez, Info7ren kasuan behinik behin, ezinezkoa da hori”. Aranbururi iruditzen zaio irrati publiko eta komertzialek kontrakultura izatera bultzatzen dituztela, baina, Hala Bedin behintzat, gustura daudela *underground* izaera horrekin. Zapirainen ustean, bestalde, musikatik harago, herri ekimenetik sortutako irratiek zerbitzu publiko bat eskaintzen dute, kate publikoek berena bete ala ez.

“Iristerrazak gara”, dio Bidartek. “Irrati publikoan ez bezala, musikari hasiberriek atak zabal-zabalik dituzte gurean, harremana zuzenean egin dezakete”. Gogoratu duenez, ikasturte honetan zuzeneko musikaren

Irrati publiko eta komertzialen irizpide musikal estuen aldean, malguago jokatzeko aukera daukate bestelako helburuekin sortu ziren emandegiek



aldeko apustua egin dute Kalegorrian magazinean. Ostiraletan, berriz, Sortzaileen Txokoan, hamaika musikari gonbidatu dituzte, tartean Gose, Joseba Irazoki, Ruper Ordorika, Andoni Tolosa *Moran*... baina baita talde hasiberri ugari ere. Horrez gain, irratia sortu zenetik martxan dute Euskal Kantu Berria izeneko formatu bat: edozein talderi aukera ematen diote disko berriko kantu baten aurkezpen laburra egiteko, azalduz zein den entzungo den kantua eta zergatik den bere-

zia. Kantua programatzen duten aldiro –biz-pahiru astez behin–, taldekideen aurkezpena emititzen da aurretik. Bidartek nabarmendu du, musika taldeak babesteaz gain, herrigintza eta eredu alternatiboak bultzatzen dituzten beste ekimenekin bat egiten duela Info7 irratia, Euskal Herria Zuzenean musika jaialdiarekin, kasurako. “Hitzarmena dugu beraiekin, urtero joaten gara bertara saio berezi bat egitera. Aurten, Arrosa Sareko Zebrabidea saiokoak izan dira bertan, eta guk



Zinemara
urte osoan!

· JAN EDAN ENTZUN IKUSI ETA IKASI ·

Donostia - alde zaharra

www.afuegonegro.com

kuña bereziak egin ditugu, festibalean parte hartu duten taldeak eta beren kantuak aurkeztuz”.

Demagun EITBko irratiaren musika irizpideak aldatzen dituztela eta musika aniztasuna modu egokian erakusten dutela. Hala eta guztiz ere, ez lukete Hala Bediko parrillaren antz handirik edukiko Etxebarriaren ustean: “Taldea hasiberri edo *underground* askoren erakusleho izaten jarraituko genuke, iruditzen baitzaigu, herri ekimenez sortuak garenez, talde askoren tza erzagoga dela guregana etortzea. Hori da gure funtzioetako bat, talde berrien tranpolin izatea”. Eta horretan dihardute: taldeek lehen lana eramaten dietenean, Hala Bedin jarriko dutela ziurtatzen diete –gainontzeko guztiei ziurtatzen dieten modu berean, bestalde–. “Horrek indartu egiten ditu”.

Entzulea ez da pitoa

Euskal Irratiaren erronka nagusia zein den gogoratu du Zapirainek: herria elkartzea, euskara sustatzea –euskalkiak barne– eta, horretarako, informazio orokorreko irrati euskaldun bat eskaintzea. Esparru guztiak helburu horietara bideratuta daudenez, musika eskaintza ere bai. “Horrek ez du esan nahi beste hizkuntzetan eginiko kanturik hedatzen ez dugunik. Bai, noski, baina tamainan, eta gureari lehentasuna emanez”. Ahaleginen dira eskualdeko musika taldeei tarte berezia eskaintzen, eta, haren ustez, oraindik ere, askoren tza beren burua ezagutarazteko tresna oso garrantzitsua da Euskal Irratiak sarea –Antxeta Irratiak, Gure Irratiak, Xiberoko Botzak eta Irulegiko Irratiak osatua–. “Gu bezalako irratiaren beharra dute musikariek, baina, are gehiago, guk geuk ere, irrati komunitario garen heinean, haien behar handia dugu”. Askotan errepikatzen dute esaldi bat: *entzulea ez da pitoa*. “Esaldi egina dirudi, baina zinez kalitateari heltzen diogu kantitateari baino”. Euskal musikari ematen diote lehentasuna, Euskal Herri osoko kantuak ipiniz. Audientziari, berriz, ez diote askorik erreparatzen, horretarako tresnarik ez daukate eta. “Hala ere, esango nuke gure lana zein den badakigulako ez diogula asko begiratzen”.

Hala Bedira iristen diren lan guztiak jartzen dituzte antenan, izan musika soilik entzuten den uneetan, izan irratsaio edo magazineta. Ez dute estilo bereizketarik egi-

ten eta entzun errazak ez diren doinuak ere jartzen dituzte, maiztasun txikiagoz bada ere. Bi irrati dituzte, eta irizpideak ez dira berberak bietan: Hala Bedi Bat irratiaren, musika hutseko tarteetan, euskarazko disko iritsi berrietatik sei kantu jartzen dituzte, eta euskarazkoak ez badira, hiru. Hala Bedi Bin, ostera, euskarazko musika da jartzen dutenaren erdia gutxienez. Esatariak, saioaren araberak, euskaraz zein gaztelaniaz aritzen dira –euskarazko adibide ezagunena, seguru asko, 3 Kortxea izango da–. Audientzia neurketarik ez dute egiten, eta hortaz, entzuleek kalean esandakoak dituzte neurgailu bakar.

Info7n ere euskal musikaren aldeko apustu garbia egiten dutela dio Bidartek, nahiz eta hortik kanpoko taldeei ere tokia egin. Bertako musikaren eta kalitatezko musikaren alde egiten dute.

Zer den kalitatezko eta zer ez, zer den komertzial eta zer ez, irizpide hori zalantza dela aitortzen du. “Kontua ez da soilik irratiaren zer entzuten den, zer ez den entzuten ere bai. Info7n ez dituzu entzungo Shakira, Mikel Erentxun edo La Oreja de Van Gogh, baina entzungo dituzu Bob Marley, U2, Snow Patrol edo Calle 13”. Non hobetu badagoela iruditzen zaio: ez daukatenez inor lanaldi osoz musika programazioa txukuntzen, emisioa modu aleatorioan erabakitzen du programa batek. Makinari irizpide batzuk ematen dizkiote –esaterako, goizean musika lasaia jartzea, eta gauean gogorragoa–.

Era horretara funtzionatzeak arazoak ekar ditzakeela uste du, ordea: “Makinak ez duenez kontuan hartzen kantua noizkoa den, ez da harriztekoa izaten tartean

90eko hamarkadako trikitixa kantu berberero bat aditza”. Ez dute kantu bat behin eta berriz jartzeko ohiturarik, hura modako bihur dadin, eta abestiak beti osorik jartzen dituzte. Programazio parrilla bete ahala musikari toki gutxiago egin diotela onartu du, nahiz eta iluntzeetako tartea musika saio berezituentzat gordetzen duten oraindik: musika klasikoa, reggaea, rock&rolla, heavy... Datorren ikasturtean jazz saio bat martxan jartzekoak dira. “Saioak boluntarioki egiten direnez, konpromiso handia da astero edo hamabostean behin saio bat egitea”. Hala ere, bertaratzeko gonbita luzatzen die musika saio bat egin nahi dutenei, emakumei bereziki. Ateak irekita dituzte. ■

“Beste hizkuntzetan eginiko kantuak hedatzen ditugu noski, baina tamainan, gureari lehentasuna emanez”

Aitziber Zapirain, Antxeta

“Irrati publikoan ez bezala, musikari hasiberriek ateak zabal-zabalik dituzte gurean, harremana zuzenean egin dezakete”

Maite Bidarte, Info7

Bertako ekoizleekin konpromisoa



Hemengoak gara eta bertako
produktuen kontsumoa sustatzen dugu.



www.eroski.es



zurekin

«Diruditena baino konplikatugoak dira herri literaturako istorioak»

Solaskide atsegina da Sigurjón Birgir Sigurdsson, Sjón izenez ezagunagoa den idazle islandiarra. Pasazaita argialetxeak euskaraz publikatu berri dion *Argoren ezpala* nobelaren aitzakian hitz egin dugu berarekin Donostian, San Telmo museoan hitzaldi bat eskaini aurretik. Argialetxeko editore Xabi Queiruga eta liburua itzuli duen Juan Mari Mendizabal ere elkarrizketan lagun izan ditugu.

Testua eta argazkia:

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

Hizkuntza askotara itzuli dituzte zure liburuak. Islandiera erabiltzen duen idazle batentzat, berezia al da zure lan bat euskaraz ikustea?

Beti da abentura bat zure libururen bat beste hizkuntza batera itzultzea. Baina noski, plazer berezia ematen du islandiera bezala gutxi hitz egiten duten hizkuntza denean. Islandian inoiz ez dugu “hizkuntza handiez” eta “hizkuntza txikiez” hitz egiten, gutxi edo askok hitz egiten dituztenei buruz baizik. Hizkuntza bat ez da inoiz txikia. Adibidez, Shakespeare islandierara itzuli baldin badezakegu, islandiera Shakespeare sartzeko bezain handia da; Dante euskarara itzuli baldin badezakezu, euskara bada italiera bere baitan hartzeko adinakoa. Hizkuntza handiek edozein lekutatik itzultzen dute; jende gutxiagok hitz egiten ditugun hizkuntzetakook liburuak partekatzea erronka berezia da.

Egin duzun ibilbideari buruz irakurtzen, beti aipatzen da zure hastapenak abangoardiei lotuta egon direla. *Argoren ezpala* honek urrun dirudi aukera horietatik, klasiko greziarren berrirakurketak ardatzen baitu. Tarteko garapena zein izan den azalduko zeniguke?

1970eko hamarkadaren amaieran poesia idazten hasi nintzen eta Medusa talde surrealistan parte hartzen nuen. Tradizioarekin hausten genuen, modu berriak bilatzen genituen islandiera erabiltzeko, aukera berrien bila genbiltzan gure poesiarentzat. Baina egin kontu taldearen izena zein den: Medusa,

noski, Greziako mitologiatik hartua da. Pegasoren ama da, Medusaren burua moztu zutenean askatu zen Pegaso. Hortaz, hasieratik jabetzen nintzen mito greziarren posibilitatez. Gainera, surrealismoak hasieratik eduki zuen elkarrizketa moduko bat Greziako mitologiarekin –mugimendu surrealisten aldizkari garrantzitsuenetako baten izena *Minotaurezen*–.

Dena den, egia da bi joeren arteko harremana ez dela hain begi-bistakoa. Agian nobela honetan oso erraz elkartzten ditut buruan arraina besterik ez daukan zaharruno aspergarria, Valdimar Haraldsson, eta ia 5.000 urteko adina daukan pilotua. Elkarrekin jartzen ditut eta istorio-kontalarien lehia moduko batean hasten dira. Hori surrealismotik datorrela iruditzen zait.

Nola deskriba daiteke Valdimar Haraldsson protagonistaren esperientzia nobela honetan? Bidaia inizatikoat joko zenuke egiten duena?

Valdimar erabat obsesionatuta dago arrainaren kontsumoan oinarritzen diren bere teoria arrazialekin. Erabat tratatuta dago mundu horretan. Gizon zaharra da eta behar duen gauza bakarria entzungo dion norbait da. Noski, ezagutzen duen edonork aspaldi egin dio uko entzuteari, beraz barku-bidaia proposatzen zaionean etengabe arrainari buruz hitz egiteko aukera gisa ulertzen du. Gero deskribituko du jende gehienak itsasora joatean deskubritzen duena: marinelek ez dute gogo-



ko arraina jatea, haragia nahi dute, azken finean arraina ez da janaria eurentzat, lana da. Horretaz jabetzea dezepzio handia da Valdimarrentzat, eta kontu horrekin obsesionatuta dagoenez, ez du bi aldiz pentsatzen afaltzera berarekin esertzen den gizon horrek 5.000 urte dauzkala eta Jasonek Argonautekin egin zuen bidaian parte hartu zuela.

Istoriaoa zein garaitan kokatzen den kontuan izanda, gerraosteko nobelatzen ere jo dezakegu Argoren ezpala?

Bai, izan ere, Valdimarrenak bezalako ideiek eragin zuten XX. mendeko tragediarik handienetako bat: Holokaustoa eta Alemania naziaren joera arrazial guztiak. Eta bera, hala ere, ideia horiei buruz hizketan ari da ezer gertatu ez balitz bezala. Ez dakit liburuko epilogoan kontatzen dudana: pertsonaia hori nire birraitonarengan oinarritzen da [ezet dio Xabi Queiruga editoreak]. Berak Islandiako egunkari batean bi zatiko artikulua luze bat idatzi zuen, *Arraina eta kultura* tituluarekin. Ideia horietako asko berarengandik hartu nituen: bitakora kaiera bat idatzi zuen bere bidaietako batean –ia nobelan kontatzen dudana bezalako, baina Mediterraneoan–. Irakurri nuen lehen aldian ezin nuen sinetsi: zein erraza zen berarentzat gauza horiek esatea gerrako esperientzia bizi ondoren ere.

“Herri literaturako istorioek gure gizartearen zati esentziaz hitz egiten dute”, adierazi zenuen duela lau bat urte *The Guardian* egunkarian. Zalantza: ez al du maiz herri literaturak gehitxo sinplifikatzen giza-esperientziaren berezko konplexutasuna?

“Zure istorioak interesgarriak dira; eta are interesgarriagoak zure hizkuntzan kontatzen baldin badituzu”.

Ez dakit, iruditzen zait herri literatura zela askotan jendeak zeukan modu bakarra gauza zail eta konplikatuez hitz egiteko. Bizitzari buruz hitz egiteko modu oso inportantetzat daukat: harreman sexual zailak, indarkeria, jendeak jasandako tratu txarrak... Diruditena baino konplikatagoak dira herri literaturako istorioak. Ikusten diedan problema bakarra da, zenbat aldiz erabiltzen diren helburu nazionalistekin. Ze, xede horrekin erabiltzen diren aldiro, noski, oso era sinplifikatuan baliatzen dira istorioak, mundua txikiago bihurtzen dute.

Hegemonikoak ez diren hizkuntzek zineman dauzkaten aukerez hitz egitera etorri zara Donostiara. Islandiar kulturak munduan daukan proiektzioa ikusirik, aholkuren bat ba al duzu euskaldunontzat?

Islandiako kulturaren eredugarriena, nire ustez, hizkuntzari lotu izana da. Gure hizkuntzan idazten dugu eta gure hizkuntzan ari gara istorioak kontatzen zineman eta literaturan. Istorio-kontatzean sinesten dugu, gizakiak istorioak partekatzeko daukan premian. Beti egon gara prest urruneko istorioak entzuteko ere, horrek ahalbidetu du gure gizartea haztea, gauzak ikasi ditugulako, handik eta hemendik hartu dugulako... Komunikatzeko ateak zabalik eduki ditugu eta istorioak gure irla txikira etorri diren era berean, oso seguru sentitu gara gure buruaz gure istorioak kanpora eraman ditugunean. Beraz, ikasgaia da zure istorioak interesgarriak direla; eta are interesgarriagoak zure hizkuntzan kontatzen baldin badituzu. ■

Literatura

Iazko hezurrak
Unai Elorriaga

Susa, 2014



Hala ere, beti pauso bat aurrera

LONDRES KARTOIZKOA DA (Elkar, 2009) eleberritik, bost urteko itxaronaldiaren ostean, itzuli da Unai Elorriaga *Iazko hezurrak* (Susa, 2014) lan erraldoiarekin. Erraldoia luzera kontuagatik eta baita edukia-ri dagokionez ere.

Iazko hezurrak azken 40 urteetako biolentziaren inguruko hausnarketa da, munduko edozein txokotan eman den indarkeria-momentu desberdinen collage moduko batek eraikia. Ruanda, Euskal Herria, Japonia, Argentina... Liburuko protagonistak indarkeriak konparatzeko ohitura hartzen du –testuak, koplak, baladak, lo kantak–, eta konturatzten da “ezin dela gehiegi ere konparatu, beti dela desberdina, beti dela gauza bera” (267. orrialdea). Azken finean, zer axola du konparaketak? Han edo hemen, baladak, koplak, kantak zein ipuinak, dena odol pilatua baita. Lurrun diren hezurak.

Eleberriz, saiakeraz, kronikaz duen lan hibrido honen hari narratiboa Irene Arriasen bizitza da. Liburuko protagonista 1971ko urtarrilaren 25ean jaio zen Algortan, Idi Amin Dada jeneralak Ugandan estatukolpea abiatu zuen egunean eta Glasgowko agintari baten etxean bonba batek eztanda egin zuenean. Irene eta Ibon 2004ko apirilaren 10ean ezkondu ziren, Ruandako genozidioaren hamargarren urteurrena bete zenean. Ireneren momentu bitalak biolen-

tziak markatuak dira, munduko edozein bazterretan edonoren bizitza bezala. Ireneren istorioa, beraz, aitzakia baino ez da. Gizaki orok zainetan daramagun pozoiaz hausnartzeko aitzakia hain zuzen ere.

Tristeza bada ere, betidanik bizi izan dugu gerra, indarkeria, biolentzia... Eta hori nahikoa ez balitz, ahozko tradizioan zein tradizio idatzian, beti kontaktu nahi izan dugu: “sugeekin, muskerrekin, txakurrekin. Egunkaririk gabe, kamerarik gabe, baina beti kontaktu nahi izan da” (213. orrialdea). Esan gabe doa berdin gertatzen dela gaur egun grabatzen diren eta jendeak ikusten dituen indarkeria momentuekin. Grabatzeari nazkagarri deritzot, baina ikusteari oraindik iraingarriago. Zer bilatzen du, bada, biolentzia begiratzen duenak?

Eta gerraz, biolentziaz, indarkeriaz hitz egiten jarraitzen dugu beste behin ere. Betiko eta betiereko gaia. *Iazko hezurrak* nobelak erakusten du pauso bat aurrera egin dugula. Hau da, biolentzia kontatzen duen literaturatik, biolentziaz hausnartzen duen literaturara iragan garena gogorarazteko heldu da. Okerrena da, pauso bat aurrera egiten dugunerako, jada hamaika atzera egin direla beste edonon. Hori ez da, baina, hausnartzeari uzteko arrazoia. ■

Saioa Ruiz Gonzalez

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com



Hameka begirada

Xutik

Zpeiz Mukaki Produksioak, 2015

Begiradak eta sentimenduak



ALTXATU, borrokatu, kantatu eta dantzatu, geldirik ez egon. “Dantzatu eta mugitu! Ezarri zutik eta mugitu! Zpeiz Mukaki taldeko musikariak izanki, elkarren arteko elkarrizketa eta proiektu berrien sortzeko gogoaren fruitua da Xutik”, taldekideen hitzetan.

Jaia eta aldarria uztartzen dituzte, irribarrez eta alaitasunez. Kantu alaiak eta dantzagarriak jotzen dituzte, rock, punk, cumbia, reggae, funk, disko, tziganoa eta beste hainbat musika estilo erabiliz, eta hitzetan zuzen eta gordin mintzo dira. “Gure musikak eta hitzak gaur egungo pasibotasunaren inarrosteko sortzen ditugu”. Besteak beste, Negu Gorriak, Fermin Muguruza, Obrint Pas, Esne Beltza, Joxe Ripiau, Mano Negra, Mad Caddies, Pipe-rrak, Kortatu eta Guk taldeak atsegin dituzte.

Hameka Begirada beren hirugarren diskoko kantuetan begirada, sentimendu eta kolore ugari antzematen dira, “belarrietatik begietara, zerutik lurrera”. Lurra gaitzat hartuta, hainbat istorio kontatzen dituzte, eta txorien, arrantzaleen, laborarien, etorkinen edota kanpora lan egitera joan behar izan duten euskaldunen lekukotasunak entzun daitezke, besteak beste.

Hainbat euskal poeta, idazle, bertsolari, marrazkilaria, zinemagile eta musikari ezagunen laguntzarekin kaleratu dute diskoa, taldekideek nabarmendu dutenez. Grabazio estudioan doinu sendoa gauzatu dute eta ekoizpen lan ona egin dute. Kantuetan indar handia erakusten dute, jendaurreko emanaldietan bezala.

Peitz (ahotsa), Balatx (gitarra), Amaiur (baxua), Ortzi (bateria), Mizel (eskusoinua eta tronpeta) eta Patxi (gaita eta saxoa) taldekideak Lapurdikoak eta Nafarroa Beherekoak dira. Xutik taldea 2008an sortu zuten. Aurretik, Zpeiz Mukaki elektrotxaranga eta dantza taldeko kideak izan ziren. Urteotan, *Hameka begirada* lana ez ezik, *Mukaki Zpirit* (Baga-Biga, 2011) eta *Bultzaden balada* (Zpeiz Mukaki Produksioak, 2013) disko luzeak kaleratu dituzte, eta 2013ko Herri Urrats jaiaren abestia sortu zuten.

Taldeak urteotan, kantu ugari grabatu ditu, hamaika jendaurreko emanaldi egin, eta sasoiko jarraitzen du, alaitasunez, gazteei pasibotasunaren aurkako mezuak helarazten, elkarrekin kantatu eta dantza egin dezaten, zutik, makurtu gabe. ■

Joxi Ubeda

Hitz gezidunak

Gaia: Arabako Errioxa

OLIBAREN ZUKU 1	EPIDEMIA ESTROPADA-ONTZI	EUSKALTEGI SAREA ZUHAITZ MOTA	TXARTEL TXIMINO TXIKI	DAUKA	BIZKAIKO HONDARTZA AKILESEN TENDOI (BI HITZ)	TIK-... ERLOJUA 3
				PONPA NAFARRO- KO MENDIA		
KOMEN- TARIOA, AZALPENA ZINTZARRI					KALABAZA (ALDREBES) NIHAUR (ALDREBES)	
			NAFARRO- KO HARANA SORBALDA, BIZKAR			ERREPI- KATZEN DEN HOTS
... IZAN, AMAITU	NAFARRO- KO HERRIA JELATUA			BASAMORTU TOKI HONETARA		
			BASOA ZINEMA			501 ERROMATAR ZENBAKIZ EZEZTAPEN
HERRI HIZ- KERAN, ZER 2		IHI ERRUKARRI, GAIXO		OSMIOA EGITEKO, ZAITASUN	ARABAKO HERRIA BASOBERA, TXARAKA	
				ZAKAR, EZ- TSEGIN GAIZTO, OKER		
TOKA, ZEN LANDA, SALBU			4 AZPIA			TONA EZ AR
	AUPA! EUSKAL HERRIA			AHOZPEZ HOLMIOA		
ZUHAUR (ALDREBES) 5		IHAR I GREKOA			HEGAZTI MOTA IODOA	
			ORIN (BIZKAIAN)			

Jokoa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

- 1 Arabako Errioxako hegoaldean kokatua dagoen herri honetan, inguruko herri guztietan bezala, ardoa eta produktu horri lotutako jarduerak dira nagusi. Maila handiko upel-tegi ugari daude herrian, besteak beste Frank Gehry arkitekto kanadarrak diseinatutakoa.

- 2 ... Txabola, Bilal herrian dagoen trikuharria, Euskal Herriko garrantzi-tsuenetariko. Herriko jaien



- bezperan (abuztuaren 15ean) akelarre bat antzetzten dute dolmenaren albo-zelaietan.

- 3 Arabako Errioxako hiriburua upategiz jositako hiribildua da. Bertako kale estuetatik paseatuz euskal

artearen harribitxietako bat aurkituko duzu, Erregeen Andra Mariaren eliza. Han jaio zen 1745ean Felix Maria de Samaniego idazlea.

- 4 Oiongo jaietako pertsonaia, herri horretako jaietako protagonista nagusia duela hiru mendetik (Argazkian).

- 5 Guardian dagoen aztarnategia. 1935ean aurkitu zuten eta harrezkero bertan egin dituzten ikerketen arabera, duela 3.400 urte baino gehiagoz bizi izan da gizakia inguru horretan.

Soluzioa

T	L	E	G	A													
L	H	A	G	A													
D	U	H	A	G	A												
B	O	K	I	N	A												
A	G	O	K	I	N	A											
I	Z	I	E	G	A												
E	L	T	R	Z	I	E	G	A									
O	E	L	T	R	Z	I	E	G	A								
J	O	A	R	E	B	U	R	E	K	A	R	O					
F	I	N	I	S	O	I	H	A	N	A	D	I					
Z	E	Z	I	O	S	Z	U	I	A								
S	O	R	G	I	N	E	N	T	A	K	A	R					
Z	U	A	N	K	A	T	X	I	A	P	E	Z					
A	T	U	E	I	E	P	A	Z	A	N	P	E	M	U			
L	A	H	O	Y	A	O	R	A	I	N	E	N					

Iraultza kreatiboa pantaila txikian

BADA TELESAILEN ARTEAN aparteko talde txiki bat, “onak ala txarrak” diren eztabaidatzetik harago, telesailen historian eragin berezia izan duena. Arrastoa utzi eta estreinatu ziren mementotik klasiko bihurtu ziren. Modu batean, iraultza kreatibo bat eragin duten ekoizpenak direla esan daiteke.

1990: *Twin Peaks* estreinatu zen urtea. David Lynch-en telesail honek trama konplexu eta ausartagoak sortzeko bidea erraztu eta ireki zien beste ekoizpenei. Laura Palmerren hilketa gutxienezkoa zen, Objektu Hegalari Ezezagunak zeuden, genero indarkeria, bortxaketak, ustelkeria... *Twin Peaks*-en ausardia horri asko zor dio adibidez, hiru urte geroago estreinatu zen *X-files* zoragarriak. Eta ez trama edo argumentuarengatik soilik: bisualki ere telesail iraultzailea izan zen. Eszena batzuk gogaikarri bihurtzeraino luzatzen ziren eta garai hartan, telesail batean ikusi ez ziren kontzeptu estetikoak loratu zituen.

Bederatzi urte geroago, 1999. urtean, *The Soprano's* erraldoia aireratzen hasi ziren. David Chasek eta HBOk, telebista mespretxatzen zuen jendeari belarondoko galanta eman zioten istorio honekin. Fikzio mota honekiko zeuden aurreiritzi negatibo guztiak hankaz gora jarri zituzten eta telesailak beste modu batean ikusten hasi ziren. Telebistan, gaur egun hain normalizatuak dauden antiheroiak jaio ziren. Ikuspuntu berri hau atal konkretu bati esker gertatu zela esan daiteke: bere alabari unibertitate desberdinak erakusten ari den bitartean, Tonyk bere eskuez tipo bat ito zuenean. “Audientzia galduko dugu!” esan zioten Chase sortzaileari. Hilabete batzuk geroago gidoi onenaren Emmy saria irabazi eta, batez ere, arrasto eza-baezina uzteari esker eredu bilakatu da telesaila.

Hortik, 2002. urtera salto egin behar dugu, askok historiako telesail onentzat duten *The Wire* aipatzeko. Pertsonaia bereziz eraikitako mosaiko bat, erritmo motelean prestaturikoa baina berezko estilo zoragarriarekin. Ekoizpenak, mundu guztiari gustatzeko modukoak egin behar ez direla frogatu zuen David Simon gidogileak, kulturko telesailen etiketa sortuz.

Beste bi urteko lehortearen ostean, 2004an *Lost* iritsi zen. Gauza ugari aldatu zituen telesailen munduan, hauekiko kontzeptua eta, batez ere, kontsumitzeko modua. Gure lehen adikzioa izan zen eta masiboki Internet bidez kontsumitzen gauen lehen istorioa bihurtu zen. Asteroko irrika jasanezin hori asetzeko sortu ziren ehunka foro eta webgunetara jotzen



Lortuko ote du *Mr. Robot* telesailak kulturko serieen artean lekua? Lehen denboraldiak behintzat ikusle asko harritu ditu.

genuen. Askorentzat TELESAILA bihurtu zen.

2008an, ezinbesteko beste ekoizpen erraldoi bat: *Breaking bad*. Azken urteetako pop kulturaren ikono bihurtu da maisulana. Pertsonaia ahaztezinez eraikitako istorio berdingabea. Azken hamarkadako gidoilariarik motibazio eta jokabide ilunez eraikitako pertsonaia sortzeko erakutsi diguten motibazioa kontuan izanik, Vince Gilliganek guztietan amoralena sortzearen meritua dauka. Walter White (Brian Cranston) pertsonaia sortu zuen, merezimendu osoz ikono kategoria irabazi duena.

2012: *Game of thrones*. Aurkezpen gehiegirik behar ez duen ekoizpena. Kasu honetan ikusle orokorrari zuzenduriko istorio bat kalitatezkoa izan daitekeela frogatu du. *Guinness* liburuan sartzea lortu du gainera, mundu osoan aldibereko igorpen gehien lortu dituen telesail dramatikoak bihurtu delako: 173 hiritan aldi berean.

Azken geltokia 2015. urtean egitea gustatuko litzaidake, baina posible al da? Ziurrenik bai, txartel hori *Mr. Robot* izeneko telesailak izan dezake. Gaurkotasun izugarria duten hainbat gairi heltzen dion gidoi ziztazaille bati esker, *thriller* psikologiko bikain eta desberdina erakutsi digulako, baina baita telesail batean gutxitan ikusitako estetika eta hizkuntza zinematografikoa ere. Lehen denboraldiaren amaierak utzi digun zapore berritzaileak behintzat, talde eskusibo horren kide berria bihur daitekeela frogatu digu. Ikusiko dugu. ■

Gaizka Izagirre

Azala hazi

FRUITU SASOI BETEA bizi dugu. Jan sasoi bikaina. Energia koloretsua orain adina noiz jaten dugu ba? Sasoi honen tankerakoak, urtea joan eta urtea etorri, etengabe garatu eta berritu daitezten haziak zaindu behar. Hazia fruituan babestuta dator. Barruko hazia heltzen den eran fruitua bere eginbeharra galtzen hasiko da eta alferrik galtzen. Ez alferrik! Fruitua helduta dagoen seinalerik nabarmenena barruko haziaren heldutasuna da. Fruituak usteltzerako bideari ekin dio, haziak bizitza sortzeari...

Haziak bere bidea behar bezala bete dezan, egokiena naturan egingo lukeen bidea egitea da. Hau da, zuzenean lur eman eta lurrari eman. Edo animaliairen batek jan eta bere digestioko beratzetik pasarazi lurrari eman aurretik.

Heldutako hazia beratzea eta lur artean "ibiltzea" ez da alferrikakoa. Haziaren heldutasunaren adierazle nabarmenena azala da. Azalak kolorea hartua eta gogor-



GRUPOCOLOMBIO-CC BY SA

tua behar du. Haziak azala zailtzen du, gainera datorkion neguan, gorrietan beltzena izanagatik, irauteko gai izan dadin.

Gero udaberrian haziaren ernamuina hozitu dadin, azal hori bigundu egin beharko da. Neguak, arrastan edo gozo-gozo ukitutako lurrak, animaliairen urdail-hestetako pasadizo azidoak... Denek beratze horretan lagunduko dute. Azala beratua, bigundua, harramaskatua, karrakatua, lixatua, jana egongo da; udak eta udazkenak zaildu zuten azala ederki samurtua harrapatuko du negu-udaberriko ernaldiak. Azala samur, ura erraz

sartuko da. Urak kanpoko berri emango dio haziari. Hark pilatutako erreserbak dantzan jarriko ditu eta hoziaren edo ernamuinaren eskuera jaki gozoak ekarriko. Ernetzean sustraia lurraren aldera luzatuko da eta ondoren kimua argiaren aldera. Sustraiak elikagaiak bilatuko ditu, kimuko hostoek airea eta argia. Sustraije-hostaje sistema moldatu bitarte horretan behar duen janaria da haziaren erreserba. Horiak biak lanean jarri ordurako landare berria burujabe da. Ez gu animalioek bezala, bizitzeko beste bizidunen bat jan beste atarramenturik ez dugu. ■

JAKOBA ERREKONDO



Zakar montonean lur ustela

BARATZE BAZTERREAN beti behar du hondakinak usteltzeko txoko bat. Zopizartzean, jorratzean, belarrak kentzean edo uzta amaitu delako berea eman duten landareen hondakinak kentzean sortzen den materiala, ondo gauza aberatsa da. Jeneralean bazterrean pilatu eta bertan usteltzen uzten da; lur ustela sortuko da. Luar pilari ere eman dakioke. Ongarri izango da hurrengo uztetarako.

Kaltegarri ere izan daiteke. Argazkiko tomate zarbak edo mastrak gorrinak jo duenaren zantzu garbiak ditu. Saldiasen esaten duten bezala "zakar montona" bazterrean utziz gero, gaitzak ere bertan gozo igaroko du negua eta hurrengo urtean tomate berri guri-guriak bistaratu orduko hor izango da gaitza ere.

Gaitzak jotako landareak ditugunean, bere hondarrak suari ematea onena. ■

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Jokin Murua, baratzezaina:

“Ideiarik ez nuen baratzeari buruz eta liburua izan dut makulu”

Aspaldidanik naiz barazki zale, aspalditik gozatzen dut sukaldean mota ezberdineko platerak prestatzen, baina aurtengo urtera arte baratzeak ez du lortu nire interesa bereganatzerik. Gure herriko baratzei begiratu ere ez nien egingo duela urte bete, eta orain joandako lekuan baratzei begiratu besterik ez dut egiten.

Hasieran har txiki bat sortu zitzaidan eta ondoren guztiz erne zait nire pasio txiki hau, badirudi nire garaia zela.

Lurra prestatu eta landare txikiak sartuz gozatu egin dut, landareak nola hazten ziren ikusiz ilusionatu naiz, tximeleta txuriak madarikatu ditut, fruituak jasoz... Uff!...

Hasieratik izan dut lagun onen batek oparitu zidan Jakobaren liburua alboan. Ez dut hasieratik bukaerara irakurri, ez dut gezurrik esango. Baina ehunka aldiz ireki dut. Ideiarik ez nuen baratzeari buruz eta liburua izan dut makulu, inguruan ditudan baratzezaleekin batera. Konturatu naiz bakoitzak bere teoriak dituela baratzeari dagokionean eta nik nireen faltan ba, Jakobarenak. Funtsean nire biblia izan da bide honetan eta kristau itsu batek nola, defendatu ditut bere ideiak.

Arrazoi edo ez, nire baratzea ez zen hain ederra izango liburuari esker ez balitz.



Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIA n erositik gero, Jakoba Errekondok eskuz sinaturiko hitz batzuekin jaso dezakezu liburua. Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusitako ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak:

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €
☎ 943 371545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus
Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.

Bizi Baratzea liburuaz Errekondok Ainhize-Monjolosen emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai www.argia.eus/multimedia helbidean.

@bizibaratzea · Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

AURKEZPEN SOLASALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.

Ondorengo hitzorduek:

**Irailak 24
Urduña**

Alondegian, 19:00etan.

**Irailak 25
Mungia**

Nekazaritza Ekologikoaren Azokan, 19:00etan.

**Irailak 26
Tolosa**

Zerkausiko azokan, 11:30ean.
SomeNETik egitasmoaren barruan.

**Irailak 29
Zaldibia**

Goierriko Hamabostaldi Ekologikoaren barruan, lekua eta ordua zehazteke.

**Urriak 1
Donostia**

Koldo Mitxelenenan, ordua zehazteke. Bagerak antolatuta.

**Urriak 3
Barakaldo (BEC)**

Bio-Cultura azokan, ordua zehazteke.

**Urriak 4
Usurbil**

Kilometroak 2015en ibilbidean, Baratze Parkean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu.

sustapena@argia.eus

☎ 943 371 545

Diabetesa gora AEBetan



AEBETAKO Mediku Elkartearen JAMA aldizkariak argitaratu duen berri baten arabera, bertako pertsona helduen %40 aurre-diabetikotzat jo daitezke, euren odoleko azukre kantitatea 1g/l-tik gorakoa baita. Helduen %14 diabetikoa da jada.


Ondorio horietara heltzeko 1988 eta 2012 urteen artean 20.000 pertsonaren segimendua

egin da, eta denbora tarte horretan diabetiko estatubatuarren portzentajea %9,8tik %14,3ra igaro da. Hazkundera maila berekoa izan da gizon zein emakumeengan eta talde etniko guztietan.

Bestalde, aurre-diabetikoen %35ek ez daki gaixotasuna garatzen ari dela. Ezjakintasun hori oso larria da, ezin baitugu ahaztu diabetesa patologia kardiakoen, oftalmologikoen, neurologikoen eta abarren oinarrian dagoela.

Ziurtzat jo daiteke AEBetan detektatutako arazo hori Mendebaldeko beste herrialde batzuetan ere gertatzen dela, Euskal Herria barne. ■

Ozono geruzaren bilakabidea: bide onetik baina astiro



IRAILAREN ERDIRA ARTEKO neurketek Antartikan garai honetan gertatzen den ozono urritasunaren berri eman digute. Antza, datuak iazko ildo beretik doaz, hau da, ez dira ez oso onak ezta oso txarrak ere.

Azken urteetako desberdintasun nagusia da ozono urritasuna gero eta beranduago gertatzen dela. Normalki urritasuna abuztu-ko lehen hamabostaldian nabaritzen hasten bada ere, iaz eta aurten bigarren hamabostaldira atzeratu da ozono faltaren hasiera.

Garai kritikoena irailaren amaiera eta urriaren hasiera bitartekoa da; hala ere, ez da aparteko daturik espero. Ozono urritasuna bere horretan mantentzen dela eta epe luzerako joera positiboa izan daitekeela baieztatu daiteke. Nolanahi ere, urriko bigarren hamabostaldian eskainiko ditugu behin betiko datuak. ■

Unibertsoa itzaltzen ari da

13.700 milioi urte igaro dira Big Bang-etik eta orduz geroztik unibertsoa zabaltzen ari da. Ondorioz, unibertsoko zati bakoitzean gero eta materia eta energia gutxiago dago. Horrela segituz gero, 100.000 milioi urte barru unibertsoa erabat itzaliko omen da.

ttiki.com/341446
(Gaztelaniaz)

Homo naledi, aurkitu dugun azken arbasoa

Hegoafrikan aurkitu dute duela 3,7 milioi urte bizi izan zen *Homo* generoko espezie orain arte ezezaguna. 1,5 metroko luzera, 45 kilogramoko pisua eta laranja baten tamainako garuna zituen. Tresnak erabiltzeko eta distantzia luzeak ibiltzeko gai zela ondorioztatu dute. Hamabost banakoren hezurak aurkitu dituzte eta, ingurunearengatik, uste dute agian hilobiratuak izan zirela.

ttiki.com/341447
(Euskaraz)

Sare sozialetan etenik gabe adi egotearen ondorioak

Gero eta gazte gehiago ibiltzen dira sare sozialetan 24 ordu eguneko eta zazpi egun asteko. Glasgowko Unibertsitateko ikerlari talde batek horren ondorioak aztertu ditu. Besteak beste, depresioa, antsietatea eta kalitate gutxiagoa eragin ditzake jasotako mezuei edozein unetan erantzuteko gertu egon "beharrak".

ttiki.com/341448
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

- web garapenak
- multimedia
- aholkularitza
- edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Ezpata ez zen Damoklesena

SIRAKUSA (SIZILIA), K.A. 405. Dionisio I.ak –edo Dionisio Zaharrak– greziar koloniaren boterea lortu zuen eta Sirakusako tirano bihurtu zen. Orduz geroztik, etsaiak ez zituen faltan izango etxe barruan nahiz kanpoan.

Dionisioren gortean Damokles izeneko gizon bat bizi omen zen, bere jaunarekiko inbidiak janda. “Haren tokian banengo... Haren boterea banu... Haren ondasunen jabe banintz... Dionisio banintz...”, errepikatzen omen zuen etengabe jauregiko korridoreetan. Egun batez, Dionisiok berak kortesanoaren bekaitzaren berri izan zuen, eta Damoklesi beregana joateko agindu zion. “Kanpora joan behar dut eta bitartean nire postua utziko dizut”, esan omen zion; “hala, nire lanak egin beharoko dituzu eta agintzea zein gogorra den ikusiko duzu”. Orduan, tronuaren gainean hari fin bat zintzilikatuarazi zuen, eta hariari lotuta, ezpata biluzia. Damokles tronuaren esertzera behartu zuen, buru gainean ezpataren punta zorrotza dilindan zuela. “Ikusten duzu ezpata? Giroan aldaketarik txikiena izanda ere, zure gainera eroriko da”. Agintearen arriskuak erakutsi nahi izan zizkion ezpataren bidez, bekaizkeriaz, konspirazioz eta losintxari faltsuez inguratuta egoteak zekarrena. Damokles, izuak jota, jaunaren oinetan belaunikatu omen zen, barkamen eske.

Ez dakigu kondaira noraino den egiazkoa, baina Dionisioren erregealdiaren metafora gisa bete-betean asmatu zuen. Damoklesek une batzuk besterik ez zituen egin Dionisioren ezpataren azpian, baina tiranoak, K.a. 367 arte, urteak eman zituen orotariko etsaien jomugan.

Kartagotarren aurka hainbatetan borrokatu zen, eta garaipen handiak lortu zituen, uhartetik erabat egozteko lortu ez arren. Rhegium hartu zuen, eta Sirakusaren boterea Adriatikokoan hedatu. Epiro konkistatu eta erraustu zuen –15.000 molosiar hil zituen–... Menpeko lurraldeak eta aldeko mertzenarioak ugaritu ahala, arierio kopurua handituz joan zen atzerrian. Sirakusan ere etsai mordoa zuen; haren autokraziak polisaren demo-



ACKLAND MUSEUM

Damoklesen ezpata (Richard Westfall, 1812) margolanean Dionisio I.a Sirakusakoa zutik ageri da, besoak zabalik, azpian Damokles duela.

kraziaren gainbehera eragin zuen, eta boterea galdu zuten aristokratik, agintaldiaren hasieratik ibili ziren tiranoaren aurkako azpijokoetan. K.a. 367an hil zen, oturuntza batean, hainbaten ustez bere seme eta oinordeko Dionisio Gaztearen aginduz pozoituta. Damokles gainean zintzilikatutako ezpataren haria, azkenean, tiranoa azpian zuela eten zen. ■

Arrastoak

Stonehengeren 90 “bizilagunak”

LUDWIG WOITZMANN INSTITUTE



STONEHENGE ezagunetik hiru kilometro eskasera, Durrington Walls aztarnategian, beste monumentu megalitiko bat aurkitu dute, aldameneko harri multzoaren garai bertukoak, K.a. 4000. urte ingurukoa. 90 harri inguruk osatuta dago, lerro zuzenean jarrita daude –ez zirkuluan, Stonehengekoak bezala– eta bakoitza 4,5 metro inguru da garai; multzo ikusgarria, ikusteko

moduan balego. Izan ere, arrokkak lur azpian daude eta radar bidez aurkitu dituzte.

Beraz, oraingoz, simulazio digitalen bidez soilik ikus daiteke (irudian). Eta aurkikuntzari buruzko informazio gehiago jakiteko ere zain egon beharoko dugu, oraindik ez baitakite guneak zer funtzio zuen eta nolako lotura zeukan Stonehengerekin. ■

NOTICIAS del PAIS VASCO durante el estado de excepcion

PAIS VASCO durante el estado de excepcion

NAVARRA
Los obreros de más d
El día 11 Navarra
plaza, calle de barrio de Pamplona que se realice para y a
Unión Carbiás (2h
crmas (1/2 h.), Etra (1 h.)
asambleas en El Pamplonica
A las dos menos
tes saltan en el momento
EXCEPCION!, disolviendo
A las 9 y 1/2
No es posible realizar
lie Navarretia y allí
DISOLUCION I GARMENDIA

NOTICIAS DEL PAIS VASCO
Boletín Informativo nº 18
¡¡¡CONDENADOS A MUERTE!!!
2 de Septiembre de 1975

La carón del Consejo de Guerra ha concluido. GARMENDIA y OTEAGUI han sido condena-
dos a muerte. El es que se han sido condenados en su juicio y sale un Tribunal
porque la Justicia. El GARMENDIA y OTEAGUI estaban ya condenados de anteaño
clase obrera y espionaje. OTEAGUI fue juzgado por sus actos en ETA, como a la
a la clase obrera y pueblo obrero del Estado español.

La PRENSA, como ya es habitual, ha seguido haciendo el papel de la voz de la
licita la información dada sobre el Consejo de Guerra en los días 28 y 29 de agosto, y que cuando se
nada la detención de los abogados por el fiscal militar, resultando interesada
mas se señalan. Como es de esperar, los dos abogados que han sido condenados a
Por sus ofensas hoy a nuestros lectores un informe completo sobre el Consejo
del País Vasco, en un número de las 28 y 29 de agosto, y que cuando se
ORDENES EN PAIS, MANIFESTACIONES Y AGILIDADES GARMENDIA y OTEAGUI
FRENTE MURIO DE BALA POR TIROS DE LA POLICIA, MURIO GARMENDIA con unos 100,000
ES EL BALANCE DE DOS DIAS.

1 - El Consejo de Guerra
de Castilla del País Vasco
- GARMENDIA y OTEAGUI
- Solidaridad con GARMENDIA y OTEAGUI

NOTICIAS DEL PAIS VASCO durante el estado de excepcion
7 de Julio 1975

Los dificultades de todos los sectores para
para la colaboración de todos los sectores para
para la colaboración de todos los sectores para
para la colaboración de todos los sectores para

NOTICIAS DEL PAIS VASCO durante el estado de excepcion

SUMARIO

- RELACION DE DOS MUJERES DE ... 1
- SOLIDARIDAD CON HERALDI ... 3
- (Bilbao, Asturias, Cataluña) ... 3
- BOLETIN ... 7
- DOCUMENTOS, CUESTIONARIOS, ETC ... 7
- FRENTE POLITICO DE LUCHA ... 7
- Comisión Obrera de Ouzpues ... 7
- Comité Superior de Impulso ... 7
- RELACION GARMENDIA Y OTEAGUI ... 13
- GARMENDIA ... 13

¡SALVAR A GARMENDIA Y OTEAGUI!

1975EKO FUSILATZEAK

Prensa klandestinoa elkartasun sortzaile


1975eko salbuespen egoerari eta frankismoaren blokeo informatiboari aurre egiteko sortu genuen Noticias del País Vasco durante el estado de excepción buletina. Zenbaki bakoitzetik 50.000 ale banatu ziren isilpean eta eskuz esku, Euskal Herrian, Espainiako Estatuan, baita Europako beste herrialde batzuetan ere. Hauze duzue esperientzia klandestino haren atzean egon zirenen historia.

| JUAN MARI ARREGI |

ASKATASUN ETA DEMOKRAZIA garaietan prentsa funtsezkoa da, are funtsezkoagoa errepresioa eta zentsura ofiziala nagusitzen direnean, Frankismoan gertatu zen moduan. Zentsurak eta desinformazioak behartzen du, behartu gintuen, klandestinitatera jo eta egiazko informa-

zioa zabaltzera. Euskal Herrian urte horietan jasaten ari ginen errepresio basatiaren aurrean elkartasun mugimenduak sortzeko beharra zegoen, eta horretarako informazioa—ezkurtukoa jakina—sekulako tresna zen. Halako zerbaitetan saiatu ginen lagun talde bat, erabat isilpean, Noti-

cias del País Vasco durante el estado de excepción (Euskal Herriko albisteak salbuespen egoera garaian) buletina kaleratzen hasi ginenean. Egoera hura bizi izan ez zuten belaunaldiak lehen eskutik ezagutu beharko lituzkete buletin horren moduko historia txiki baina garrantzitsuak.



1975EKO FUSILATZEAK • TERMOMETROA

baitzien polizia eta epailei. 1975eko maiatzean Bizkaian eta Gipuzkoan deklaraturako salbuespen egoeraren ondorioz hasitako gorakada errepresiboak goia jo zuen bost militanteak fusilatu zituztenean –ARGIaren zenbaki honen 11. orrialdean Mertxe Urtuzaga Otaegi, Angel Otaegiren senideari egindako elkarrizketa duzu irakurgai–.

Euskal Herrian, 1967tik hainbatetan bizi izan genituen salbuespen egoerak: berme “konstituzionalak” ezabatu eta indar errepresiboek nahieran jokatzeko uzten zieten garai lazgarriak. Horretarako, frankismoak hedabide gehien babesa zuen. Nolanahi ere, maiatzaren 22an Bizkaia eta Gipuzkoari buruzko informazio oro “erreserbatutako materia” izendatu zuten. Desinformazio ofiziala are lasaia zabalitzen zuten erregimenak modu horretan, eta errepresioari ateak parez pare zabalitzen zitzaizkion atxiloketa eta torturen bidez.

zen egiantan gertatzen ari zenaren berri ematea ahalik eta jende gehienari –batez ere sektore borrokalaria antifaxistari, zuen ideologia zuela ere–, eta Euskal Herrian ez ezik, Espainiako Estatuan eta hortik harago zabaltzea.

Erbestetik itzuli ondoren, berriz ere atzerrira jo behar izan nuen 1975ean, hain justu salbuespen egoera indarrean jarri zenean. Madrilen ezkutatu nintzen. Han, esparru progresisten artean harremanak egin nituen, batez ere Eliza ez ofizialaren oinarrian zegoen jendarekin, baita zenbait alderdi politiko klandestinoekin ere. Kontaktu horien ondorioz, segituan konturatu nintzen Euskal Herriaz zegoen desinformazioari aurre egin behar zitzaiola sistema alternatibo bat eraikiz. Xabier Sanchez Erauskin kide eta laguna ere Madrilen bizi zen orduan. Berarekin hitz egin nuen, gaia aztertu genuen, eta erabaki genuen Euskal Herrira, Estatu osora eta Europara ere iritsiko zen buletina sortzea. Etxea, dirua eta kotxea utzi zigun Madrilgo euskaldun baten laguntza ordain ezinari esker, eta Euskal Herrian genituen informazio iturriak erabiliz, buletina martxan jartzeari ekin genion.

Madriren ezkutuan nintzela egindako harremanen ondorioz, konturatu nintzen Euskal Herriaz zegoen desinformazioari aurre egin behar zitzaiola

Testuinguru horretan sortu zen *Noticias del País Vasco durante el estado de excepción* argitaratzeko ekimen klandestinoa, talde politiko eta sindikatuekiko independentea. Asmoa

1975eko maiatzaren 28a: lehen buletina

Maiatzaren 28an irten zen lehen buletin informatiboa. Data horretatik salbuespen egoera amaitu zen arte igarotako bi hilabeteetan 15 buletin egin ziren, gutxi gora behera 200 orrialde. Horiei gehitu behar zaizkie ondoren osatutako beste bost zenbaki: Gerra Kontseiluen

ETA eta FRAPeko militanteen fusilatzeak

Irailaren 27an beteko dira 40 urte José Humberto Baena, José Luis Sánchez Bravo eta Ramón García Sanz FRAPeko hiru kideak eta ETAn Jon Paredes Manot Txiki eta Angel Otaegi Etxeberria, heriotzara zigortu eta fusilatu zituztela. Francoren erregimen faxista indarrean zegoen. Gerra Kontseiluak, izaera militarra zuten epaiketa makur haiek, fartsa judizial hutsak ziren, Lege Antiterroristaren dekretuak edozer egiteko eskua eman

Inguru ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonaurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18. Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635.748.948 - 635.748.947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com



Banaketa gune nagusia Aranda de Dueron zegoen, hortik banatzen zen buletina Euskal Herrira, Sevillara, Bartzelonara edota Valentziara.

nondik norakoak eta haien kontra herritarrek izandako erreakzioa jaso zuten azkeneko horiek.

Buletina Madrilen editatu genuen sekretuan, eta herritarren laguntzaz lortu genuen Euskal Herrira eta estatu osora zabaltzea. Europako beste herrialdeetara eta Amerikara ere iritsi zen informazioa, atzerriko kazetariak eta Madrilen kokatutako enbaxada garrantzitsuenek eskuan jasotzen baitzuten buletina. Radio Parisek, Pyrenaicak, BBCK, *Le Monde*, baita France Press, Reuters, Associated Press, Unaited Press International eta beste hainbat agentzia ezagunek ere, buletina izan zuten iturri. Etengabe aritu nintzen mezularitza lanetan haiekin; tartean zeuden Jose Antonio Novais eta Walter Haubrich Frantziako eta Alemaniako korrespontsal entzutetsuak.

Konfiantza osoko pertsonengandik jasotzen genuen informazioa (abokatuak, apaizak, laikoak...), Euskal Herriko txoko askotako jendeak bere segurtasuna eta bizitza

arriskatu zuen, Guardia Zibileko Manuel Hidalgo kapitain zanpatzailaren itzala atzetik izan baitzuten. Hidalgok uste zuen buletinaren operazio zentroa (erredakzioa, inprenta, distribuzioa...) Durangaldean zegoela: Gernikako kuarteleko buru zela, hainbat atxiloturi galdezkara aritu zitzaizen ea buletina non inprimatzen zen, baina sekula ez zuen halakorik jakitea lortu. Hala ere, bera ziur zegoen Durangaldeko herriren batean argitaratzen zela, eta halaxe esaten zuen atxilotuen aurrean.

Euskal Herriko txoko askotako jendeak arriskatu zuen bizia buletina zabal zedin, Hidalgo kapitainaren itzala atzetik izan baitzuten

Buletinek harrera oso beroa eta zabala izan zuten, koordinatzaile lanetan aritu ginen Sanchez Erauskin eta biok ere harrিতa geunden. Pertsona askok parte hartu zuen: batzuek dirua eman zuten gastuak ordaintzeko, beste batzuek etxeetako eta elizetako ateak ireki zituzten multikopistak kokatzeko, eta banaketa egiteko kotxea utzi zutenak ere ez ziren gutxi izan.

Banaketa gune nagusia Aranda de Dueron zegoen, hortik zabaltzen zen Euskal Herrira, Sevillara, Bartzelonara edota Valentziara. Euskal Herriarekin konexioa geuk

egiten genuen, Madrildik Aranda de Duerora bidaiatuz; Bilbotik beste kotxe bat etortzen zen zorrotan bildutako buletinak jasotzera, eta hortik gainerako tokietara eramaten ziren. Zenbaitek euren multikopistak eta bulegoak erabiltzeko baime-na eman ziguten dokumentuak editatu, fotokopiatu eta biderkatzeko. Eta zigiludun gutun-azalak ere behar ziren, bereziki bankuetakoak, modu horretan buletina azkar banatzen baitzen Espainiako Estatuan barrena. Buletinak berrargitaratzea ere ohikoa zen, nor bere herritik edo lantokiko bulegotik.

50.000 ale baino gehiago

Kolaboratzaileen eskuzabaltasunari esker 50.000 ale ateratzera iritsi ginen zenbaki bakoitzeko, seguruenik gutxienez 150.000 irakurle izango zituen buletinak. Parisen zegoen Ruedo Ibérico argitaletxeak gerora liburu bat kaleratu zuen: *Euskadi, el último estado de excepción de Franco*. Liburu hura buletinaren erredakzio taldeak egin zuen, eta ezkutuko esperientzia informatiboaren hainbat gorabeheren berri eman zen bertan.

Zergatik izan zuen hainbesteko arrakasta? Eta zerk bultzatu zuen hainbeste jende informazio klandestino zabaltzen laguntzera? Arrazoiak begi-bistakoak dira: buletinak informazio hutsune oso handia betetzen zuen; jendea egiazko albisteen gose zegoen. Buletinak osatzeko orduan, notiziak seriotasun eta objektibotasun handiz jorratzen saiatu ginen, hori ere berme bat zen irakurlearentzat. Modu berean, informazio erretorikoa bazterrean utzi zen eta askotan gertaeren deskripzio hutsak ematen ziren orrialdeotan.

Hidalgok ez zuen inoiz ezkutuko informazio hura desegitea erdietsi, eta herritarren zati handi bat gertatzen ari zenaren jakinaren gainean izatea lortu genuen. Gisa horretan, elkartasun mugimendu zabala ernatu zen Euskal Herrian eta kanpoan, eta horren adibide dugu ETA eta FRAPeke militanteen fusilatzeak jendartean sortutako erantzuna. Bada garaia 1975eko buletin hura posible egin zutenei eskerrak eman eta haien lana aitortzeko, batzuek jadanik hilda dauden arren. ■

LUAarkitektoak
 hirigintza
 hirigintza aholkularitza
 udal planak
 urbanizazioak
 periferiazioak
 balorazioak
 etxebizitza proiektuak
 birgaitzeak
 barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
 lua@luark.com
 Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña

‘GEUREKIN MENDIRA’ EKIMENA

20 urtez euskara eta mendia atseginez uztartzen Gasteizen

Bego Ariznabarretak eta Maite Mendiburuk pentsatu zuten euskaldunez osatutako mendi taldea egin beharko zuketela. Esan eta egin. 20 urte pasa dira GEUrekin mendira sortu zuten zutenez geroztik.

| MIEL A. ELUSTONDO |

2014AN eta Andre Maria Zuriaren jaiaren atariko, ekimen berria abiarazi zuen Gasteizko euskaldunen elkarte GEUk, Heltu Buruari saria emanaz. Nahi izanez gero, ideia ez da sobera originala, baina ongi da beti bakoitzari berea ematea, eta urteetan euskararen aldeko lanean berezi den pertsona edo elkarte aipu eta sona handiz janztea. Estreinako hartan, Pako Eizagirre irakasle saiaturia izan zen izendatua. Aurten, berriz, ibilian hogeitau urte egin dituen *GEUrekin mendira* egitasmoa nabarmendu du erran delako GEU elkarteak, eta horrela, taldearen izenean Bego Ariznabarreta gasteiztarrak (Soraluze, 1953) jaso zuen saria. “Baina nirekin zen talde osoa. Taldea gara, eta taldean egiten dugu lan. Horixe dugu ezaugarrietako bat”.

Bi lagun mendira bidean

Gasteizko Aihotz plazan Heltu Buruari saria jasorik, aihotz baten gainean zina egin behar izan zuen Ariznabarretak, non hurrengo hogeitau urteetan ere –gutxienez–, burua zut euskararen alde jardungo dutela zintzo agintzen baitute. “Eta egiten ez badugu, lepoa moztuko digutela esan ziguten! Kar, kar...”. Txantxa eta hitz-jolasak gorabehera, hogeitau urte bete zituen orsailean *GEUrekin mendira*. “Orain dela hogeitau, 40 urteko emakume bi ginen Maite Mendiburu eta biok, eta koskortuak genituen seme-alabak. Haiek bakarrik ibil-



Beste mendi taldeetan gertatu den bezala, ‘GEUrekin mendira’ko kideen batez besteko adinak gora egin du. 40 urtetik gorakoak elkartzea da ohikoa.

tzen eta irteten hasita zeuden eta, beraz, tarte libreak ere bagenituen guk –dela ostiral arratsaldea nahiz larunbat goiza, esaterako–, eta mendirako baliatzen hasi ginen tarte horiek”. Eta, behin halako, mendi irteera horietako batean, Maite Mendiburuk Bego Ariznabarretari: “Euskaldunez osatutako mendi taldea egin beharko genuke!”. Maiteren ideia izan zen. Nik baietz esan nion, baina besterik gabe. Ordurako, dena den, GEU

elkarteko kide ginen biok eta, hortaz, egun batean, *Geu* aldizkarian iragarkia jarriko zuela esan zidan Maitek. Eta esan eta egin: ‘Halako igandean, goizeko 9:00etan, Txapela taberna aurrean, irteera Ezkibelera’. Ez genekien inor etorriko zen ere, baina hogeitau hamasei lagun bildu ginen!”.

Maite Mendibururen ideari jarraitu zitzaion Bego Ariznabarreta, konplize egin ziren lehen ere adiskide eta lagun zirenak, eta han-



Ezkerreko argazkian Bego Ariznabarreta GEU euskaldunen elkarteak emandako Heldu Buruari saria jasotzen. Hurrengo hogeitertean ere burua zut euskararen alde jardungo dutela zintzo agindu zuen, "eta egiten ez badugu, lepoa moztuko digutela esan ziguten! Kar, kar...". Eskuinean, 200 mendi irteeretako batean, Erlon.

dik laster, jendea deitu zuten bilera batera: "Eta talde izaera gorpuztu genuen. Jende mugimendua izan da harrezkero, jakina, batzuk gaizkitu dira, beste batzuek bestelako bideak hartu dituzte, baina talde izaera horri eutsi diogu beti". GEU elkar-tearen baitako da *GEUrekin mendira* asmoa sortze beretik: "Atal berezi bat osatu genuen elkar-tearen barruan eta horrela jarraitzen dugu. Elkar-tearen jarduera izan gara hogeitertean, eta horrela izan nahi dugu luzaro!".

Antolatu, erraz

Hilean behin, hirugarren igandearekin egin ohi dituzte txangoak, eta udako oporrak gorabehera, 200 irtenaldi ere bete dituzte hogeitertean: "Batuetan euskararen aldeko jaiak izaten dira hileko hirugarren igande horretan, eta orduan egokitu egiten dugu gure irtenaldia, delako jai ospatzen den lekura joan eta han inguruko mendiren batean egiten dugu ibilaldia, edo bestela, gure mendi eguna aldatzen dugu". Hogeitertean ez dute alde aurretik balizko mendizalearen izenik hartu. Datorrena datorrela hitzordura, mendian gora prest dira beti abian. "Konplikazioak saihestu ditugu hogeitertean. Gauza gutxiarekin ahal den gehiena egiten saiatu izan gara beti, bidea

erraz egiten". Hala ere, egun batean nahiz bestean *Geurekin mendira* ekimenean parte hartu duten lagunen izenak hartu izan dituzte, harremanak erraztea xede. Horrela, amarauna ere osatu dute hogeitertean honetan.

Mendizale euskaltzaleok ekainaren amaieran, azkeneko irteeraren ondoren bildu ohi dira ondoko sasoiko mendi irteerak finkatzeko. Proposamenak bildu ohi dituzte, zerrenda erabakitzen, eta txango bakoitzaren gidari eta arduradunak zehazten.

"Aspaldi konturatu ginen euskara lantzeko esparruak behar genituela Araban. Edonora joanda ere, nahikoa da erdaldun bat denok gaztelaniara behartzeko. Erdaldunik etorri da inoiz, baina guk ez dugu hizkuntza aldatu"

Bego Ariznabarreta,
GEU mendira-ren sortzaileetakoa

Dakienak badaki mendizaletasunak goiti-beheiti handiak izan dituela gure herrietan. Talde askok erreka jo dute, bestelako bideak hartu ditu mendizaleak. "Hogeita

hamasei lagun izan ginen lehenengo egun hartan, baina gertatu da, bazterretan elurra eta hitzordura bi lagun besterik ez azaltzea, eta bi horiek bakarrik abiatzea elurretan. Bestalde, izena eman beharrik ez dagoenez, konpromisorik ez du inork. Behin, gogoratzen naiz, hirurogeita bost pertsona etorri zitzaizkigun. Txindokira joatekoak ginen. Otsaila zen, baina udako giro bete egin zuen aste hartan, eta igandean jendetza mendirako. Autobusa genuen aginduta, baina berrogeita hamabost leku zituen!

Hamar lagun bi autotan joan behar izan ginen Larraitzera, eta handik lotu gintzaizkion gorako bideari". Gaur egun, batez beste, hogeitertean baino gutxiago bildu ohi dituzte. Txangolariaren adina ere hor da beti. "Gure kasuan, hasieran gaztetxo asko etorri ohi ziren. Besteak beste, gure seme-alabak, eta haiekin batera, beraien lagunak ere bai askotan. Hogeitertean igaro dira, hogeitertean zaharrago gara gu orain, eta, bistan da, gure mendizalearen batez bestekoa ere igo egin da. 18-19 bat urteko gazteak etorri ohi dira inoiz, baina 40 urtetik gorakoak gara gehienok. Mendizale talde guztietan gertatu da hori". Agerian denez, gasteiztarrak dira txangootara biltzen diren mendizale guztiz gehienak, nahiz eta Arabatik ere

badatorren aleren bat, eta Gipuzkoatik ere etorri izan da baten bat, hala Aretxabaletatik nola Seguratik, adibidez.

Mendia, euskaraz

Horixe dute hastapenez geroko leloa, “Mendia euskaraz”. Gure hizkuntza zahar beti berrian nahi zuten, eta horretan dira gaur egun ere. “Aspaldi konturatu ginen euskara lantzeko esparruak behar genituela Araban. Edonora joanda ere, nahikoa da erdaldun bat denok gaztelaniara behartzeko. Erdaldunik etorri da inoiz, baina guk ez dugu hizkuntza aldatu. Gure ekimenaren berri izan eta behin edo behin entzun behar izan dugu diskriminatzaileak garela, baina, hara!, txirringarritza karre- batera joaten denari ez zaio bururatzen bizikleta gabe joatea, ezta? Bada gurekin mendira euskararik gabe etortzea ere ez”. Ariznabarretak dioskunez, modurik naturalenean jarduten dute, beraien asmoari lotu zaizkio hasiera-hasiera hartatik eta asmo harixe

loturik irauten dute. “Euskara eta mendia’ da gure leloa”.

Zerutik jakina da kirola edo gorputz ariketa baino gehiago dela mendia, gisa honetara bederen. “Giroaren ederra azpimarratuko nuke nik, gure artean sortzen den lotura hori. Guztiok komunean zerbait dugula ikusten da, mendia eta euskara, biak maite ditugula. Oso giro atsegina dago beti, eta euskaldun asko –asko, gero!–, eza-gutu ditugu urte hauetan zehar”. Ez dira bere buruari begira egon. Ate-leihoak ireki eta harremanak izan dituzte beste zenbait talderekin, Gasteizen bertan nahiz hiriburutik kanpo. Zerrendan dira Bagare elkarte, Euskaraz Bizi, Gasteizko Mintzalagunak, Segurako Iparra Hegoa, Goierriko mendizale beteranoak, Gurasolagunak eta beste.

Hogei urte otsailean, saria Andre Maria Zuria jaien atariko, eta orain arte moduan aurrera egiteko gogo bizia dute. “Hogei urte, eta ez gara nekatu! Gure arteko giro atseginak ere laguntzen du.

Hilean behin egiteak ere bai. Mendizale taldeek igandero egin ohi dituzte beren txangoak. Gu helburu apalekoak gara, lehiarik gabeko taldea –oso inportantea den gauza–, eta euskara eta mendia maitatzea besterik ez dugu eskatzen gure irtenaldietan”.

Honenbestez, irailaren 20an ekin zioten sasoi honetako egitarauari. Beratza-Bagata-Aloria zuten ibilkizun. Urriaren 25ean, Ganekogorta-Kamaraka-Laudio dute asmo. Azaroan, Urbasa-Bargarain. Abenduan, Orkatzategi-Ametzueteta-Araotz izango dute.

Jakinaren gainean gaude: hileko hirugarren igandean Gasteizen da hitzordua, Mendizorrotzako apartokalekuan, Ogeta pilotaleku atarian, goizeko zortzi eta erdietan ttanko. Hantxe *GEUrekin mendira*, Lizardiren bertsoa gogo-bihotz eta ezpainenetan: *Maite ditut gailurrak, argiak ez beste. / Ai, begaztia banintz, gañik gain nembilke*. “Ezin hobeto biltzen dute Lizardiren hitzek gure espiritua”, burutu du Bego Ariznabarretak. ■

Soldatzaileek badakite bestelako bideragarritasun plana egiten



Koxka

Non dago: Iruñea (Landaben poligonoa).

Zer egiten du: Saltoki handietarako hozkailuak.

Egoera: Hartzekodunen lehiaketan 2014tik.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |



AHOTSA.INFO

Ekonomia sozialean oinarrituriko enpresa proiektuaren bideragarritasun plana egiten "izugarri ikasi" dute langileek, azkenean konkurtso-administrariak Koxka zuzendari-ohi talde baten esku utzi badu ere. Irudian, lantegia itxi zuten egunean.

HARTZEKODUNEN lehiaketan egon da azken urtean Koxka enpresa bi proiekturen arteko borrokan, eta paper artean aurkitu dugu Ramon Salinas Garrido. Koxkako langile ohia da eta beren enpresa izandakoa-ri aterabidea emateko proiektua pres-tatu dutenetako bat. Gaur esku artean dauzkan orri horiexen artean pasa ditu azken hilabeteak Salinasek beste zenbait kiderekin batera, enpre-saren bideragarritasun plana eta enpresa modelo garatzen. Langileak lehen larroan jarrita eta kooperatiba eredu bezala hartuta egin dute lan-sozietate baten aldeko apustua.

2014an behea jo zuen lantegiak eta berrehundik gora langile geratu ziren kalean. Hartzekodunen lehiaketa-pasa zela eta inork hartu ezean txatarrerako geratuko zenaren beldur-zez, langileek Koxka berreskuratzeko aukera ikusi zuten. Urte gorabeheratsuak igarotakoak dira: 2009an EEEn sartu zirenetik 2014an azken errematea jaso zuten arte, ikusi behar izan dituzte kaleratzeak, gainerako langileak enpresa funts *putre* deituriko AYAC taldearen esku geratu izana, eta hau zorra zorraren gainean nola ari zen pilatzen. Koxkaren irabaziekin poltsikoak bete eta Gizarte Segurantzari 7 milioi euroko zuloa utzita alde egin zuen AYACeko zuzendaritzak. Zor horrek zaildu du hartzekodunen lehiaketa, 2014ko irailean indarrean sartu zen legeak

baitio zorra hurrengo hartzaileak ere jaso beharko duela. Interesa zuten zenbait enpresari atzera bota zituen pisu ekonomiko horrek, eta langileek euren proposamena aurkeztu zuten.

108 kideren babesa

Paper eta txostenen artean dantzan, atera digu Salinasek administrariari aurkeztu zioten lehen zirriborroa. 108 kideren atxikimenduarekin adierazi zuten horietako bakoitza prest zegoela buruko 25.000 euro jartzeko –kalkuluak kobratuko zuten langabeziaren arabera– eta diru horrekin Koxka berriz ere martxan jartzeko. “Hasierako zirriborro hartatik hona izugarri ikasi dugu” dio barrez Salinasek txostenari begira, “gure helburua nola edo hala proiektu bat aurkeztea zen, baina gu ez gara enpresariak, eta egun batetik bestera lantegi baten bideragarritasun plana osatzea ez da batera erraza”.

Zuzendari ohiak izan dituzte parean, ordea, beste enpresa proiektu batekin, eta langileak hitz egiteko prest agertu badira ere, ezezko erantzuna jaso dute beti.

Ekonomia sozialaren baloreetan oinarrituta, SAL (lan-sozietate anonimo) bat sortzeko enpresa proiektua aurkeztu zuten langileek. Proiektua bera osatzeko prozesu guztia kideen onarpenarekin eta gardentasun osoz egin dutela diote harro, eta bidea hori dela iritzi diote. Ez dira, baina, proiektuan idatzitako hitz hutsetan soilik geratu, Salinasen arabera zero-tik eraikitako balizko enpresa horretako baloreak hasieratik jarri nahi izan dituzte praktikan.

Enpresa erosteko txatarrerako balioko lukeen kantitatea eskaini zuen langile taldeak, nabeen benetako balioa hori zela argudiatuta, eta langile bakoitzak bere poltsikotik jarri beharreko dirua, aldiz, enpresa martxan jartzeko litzateke. Zenbait hornitzailearen onespina eta babesa ere lortua zuten eta bezero batzuk ere prest zeuden berriz ere hartu-emanetan hasteko.

Administrariari ez zaio, ordea, nahikoa diru eskaini dutela iruditu, eta zifra altuagoa eskaini duen zuzendari ohi taldeari eman dio enpresa. Diruan egongo da koxka. ■

Udaletako aktak euskara hutsean: 5-1 doaz irabazten partida

AMEZKETA, GAINZA, Bergara, Arama eta Elgetako udalek jaso dituzte epaiak. Lehenengo, Amezketako eta Gaintzako udalen albisteak iritsi zen. Bi udalok aktak euskara hutsean bidaltzea zilegi zela erabaki zuen Donostiako Epaitegiak. Horrela, Carlos Urquijo Espainiako Gobernuak EAEko ordezkariaren helegiteen aurkako epaiak eman ditu epaitegiak.

Epaia diobenaren arabera, EAEko Euskararen Legeak horretarako eskubidea ematen die Gaintzako eta Amezketako udalei. Hortaz gain, abokatu eta prokuradoreen ordain-sarien kostak ordaintzera zigortu du Espainiako Gobernu Ordezkaritza. Ordezkaritzak epaia errekurritzeko aukera du datozen egunetan.



KONTSEILUA

Kontseiluak eta UEMak deituta, otsailaren 28an, udalerrriak euskaraz aritzeko aldarria egin zuten ehunka lagunek.

Udalak erabaki guztiak Espainiako Gobernu Ordezkaritzara bidaltzera derrigorputa daude. Udal batzuek erabaki horiek euskaraz hartzen eta idazten dituzte, eta beraz, gaztelaniara itzuli gabe bidali izan dituzte Gobernu Ordezkaritzara. Urquijok errekerimenduak eta helegiteak ezarri zizkien gaztelaniaz behinik behin ez zituztelako bidaltzen.

40 udal inguruk aktak euskara hutsean bidaltzeagatik errekerimendua edo helegitea jaso zuten. Aktez gain, beste bost gairen inguruan jarriak ditu Carlos Urquijok errekerimenduak eta helegiteak. (Zerrenda osoa: www.argia.eus/argia-aste-karia/2451/udalerrri-euskaldunak-jomugan).

Gaintzako eta Amezketako udalek jaso duten epaia bera izan dute geroxeago Elgeta, Bergara eta Aramako udalek. Aldeko epaiak eman izanak orde, ez du esan nahi hemendik aurrerakoak hala izango direnik. Lekeitioko Udalak adibidez, kontrako epaia jaso zuen. Euskararen Legearen anbiguotasuna baliatuta epaileek aldeko edo aurkako epaia eman dezakete, baita auzitegi berekoek ere.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Katalanen ekonomiaren kontrako gerra zikina

KATALUNIAN INDEPENDENTZIA LORTZEKO AUKERAK Espainiako Gobernuan alarma piztu du, baita espainiar alderdien —eskuineko nahiz ezkerreko—, Konstituzio Auzitegia moduko erakundeen eta euren terminal mediatiko guztien artean ere. Jadanik benetako gerra zikinean sartuta daude denak, katalanen eta euren ekonomiaren kontra. Erabili dituzten argudioak asko dira: enplegua, ogia, pentsioak, aurrezkiak, zerbitzu publikoak, enpresen deslokalizazioa, eta abar. Gerra zikina susatzen ari direnen arabera, independentzia aldarrikatuko balitz kaosa nagusituko litzateke Katalunian, hondamendia, langabezia eta pobrezia ere haziko lirateke, pentsioak ezin ordainduta, Europa eta gainerako mundutik isolatutako herrialdea litzateke. Beldurra eragiteko argudioak dira, herritarrek botoa askatasunean emateko duten eskubidea murrizteko saiakera larria.

Badaude, orde, arrazoiak pentsatzeko Katalunia independentea ekonomikoki bideragarria izango litzatekeela, ongizate gehiago ekarriko lukeela eta merkatuek konfiantza handiagoa izango luketela Kataluniarengan, Europako herri aberatsenetako moduan segituko bailuke. Hori ez dute katalanek soilik esan. 1992ko eta

2004ko Ekonomia Nobel saridunek, Nazioarteko Moneta Funtseko zuzendari ohiek, Eurostatek, Suitzako Bank Credit-ek eta Bundestag banku alemanak, *Financial Times*, *The Wall Street Journal* eta beste hainbat hedabidek... Horiek guztiak Kataluniaren independentziaren aldeko datuak eman dituzte.

Ondorioz, desiragarria litzateke guda zikina baztertu, mehatxuak egiteari utzi eta hondamendia iragartzen duten argudioak eman orde, herritarren artean eztabaidatzea kontrako eta aldeko argudio ekonomiko serioak, bai Kataluniarentzat, baita Euskal Herriarentzat ere. Hor daude, adibidez, Josep Borrell eta Joan Llorachek esandakoak *Los cuentos y las cuentas de Cataluña* liburuan, dirudienez TV3n betoa jarritakoak —telebista kateak dio elkarrizketa proposatu diela egileei hauteskundeak igaro ondoren—. Herritarrek eskubidea dute zehaztasunez jakiteko aldeko eta kontrako argudio ekonomikoak zein diren. Eta behin bozketa eginda, denek errespetatu dezatela hauteskontzietatik diotena, eta kasu honetan, hobe erreferenduma balitz.

Juan Mari Arregi

Europako ezkerre kontraerasoan dator: «Jo ezkererago!»

Grezia, Irlanda eta Espainiako hauteskudeen emaitzen zain egon gabe, Europako zenbait lider aurrerazale ospetsuk –Oskar Lafontaine alemana buru– konpromisoa hartu dute gaur nagusi den estrategia neoliberalari ‘B plan’ bat kontrajartzeko. Justu egun berean Britainia Handiko Alderdi Laboristak historiako buruzagi ezkertiarrena hautatu du.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

LEHMAN BROTHERS IRAILAREN 15 batean sartu baldin bazen kiebran, 2008an, Europako ezkerre –baimendu bekigu singularrean mintzatzeari aitortuz mugimendu txit anitz dela– ontziaren lemari ezkerre eraginez ospatu du azken ehun urteotako krisirik bortitzenaren zazpigarren urteurrena.

Britainia Handikoa markakoa gertatu da Alderdi Laboristaren buruzagitzarako hautatzean Jeremy Corbyn, historian eduki duen buruzagi guztietan ezkerrekoena. Izendapenaren egun berean, irailak 12, larunbata, bost pertsonalitate ospetsuk konpromisoa hartu dute ‘B plana’ antolatzeke Europar Batasunean zilindro baten gisa aurrean harrapatutako guztia berdintzen duen politika neoliberalari aurre egitearren.

PCF Alderdi Komunistaren egunkari *L’Humanité*ren festak –*Fête de l’Huma*, lagun arterako– urtero egin nahi izaten du Frantziako eta orokorrago Europako ezkerrearen termometro lana. Bertan egin dute ‘B planaren’ aldarrikapena.

Sinatzaileak dira Jean-Luc Mélenchon europarlamentari frantziarra, Parti de Gaucheren sortzailea, nazio gaietan jakobino ezaguna bide batez esanda; Stefano Fassina italiarra, diputatua eta Ekonomiako ministroorde dimititu berria Matteo

Renzik ezarritako politikarekin haserre; Zoe Konstantopoulou Greziako Legebiltzarreko lehendakaria, Syrizako buruetakoa atzo arte; Oskar Lafontaine alemaniarra Ogasun ministro ohia, Die Linke-ren sortzaileetakoa; eta Yanis Varoufakis greziarra, aurkezpenik behar ez duen izarra.

Deialdian diotenez, premiazkua da ikastea Grezian Europar Batasunaren eliteak eman duen estatu kolpe finantziarioaren lezioa. “Europa honek ez du sortzen nazioen barruko eta nazioen arteko bortxa besterik: langabezia izugarria, dumping sozial bortitza, buruzagi alemaniarrek Hegoaldeko Europari botatzen dizkieten isekak (...) Europar Batasuna ari da elikatzen eskuin muturren indartzea eta bihurtu da ondasunak ekoiztu eta banatzearen kontrol demokratikoa deuseztatzeko tresna Europa osoan”.

Oskar Lafontaine da sinatzaileetan karrera politiko sendoa aurkeztu dezakeena. Hain zuzen ere, Lafontaineek proposatu zuen abuztuan Europako ezkerrearentzako ‘B plana’ prestatu beharra, Greziako porrotaren harian: “Injustua eta harroputza litzateke Alexis Tsiprasi eta Syrizari lezio moralak eman nahi izatea. Europako ezkerrearen esperientzia hauen ostean, hobe dugu hausnartzea ea zein baldintzatan

Irudi handian –Justin Tallisek AFP agentziarentzako egindakoan– Jeremy Corbyn diputatua Labour alderdi laboristaren barne hauteskundeak irabazi ostean militanteen txaloak jasotzen. Izendapenaren interpretazioetan sartuta, batzuek Margaret Thatcherrek iraultza kontserbadorea hasi zueneko laborismo ezkertiarra –neoliberalismoaren aurrean galtzaile atera zena– ikusi dute Corbynen programan. Beste batzuek 2008 ondorengo krisitzarrak Europako ezker guztietan –mugimendu sozial berri ugari arnasarekin batera– eragin duen ezkerre-ranzko joeran Corbyn ezezagunaren garaipena. Modako hitza trantsizioa suertatu daiteke ondoko hilabeteotan: politikoa, ekonomikoa, Europaren egiturazkoa, ekologikoa... *Paris Match* astekariaren webetik hartutako irudi txikian, Fassina, Lafontaine, Mélenchon eta Varoufakis egun berean *Fête de l’Huma* festan egindako aurkezpenean.

garatu dezakegun Europar politika demokratikoa eta ezkertiarra”.

Eurotik irten ala ez, euroa versus drakma... ezkerreko buruak ados jartzen ez dituen eztabaida gaintzeari proposatu du Lafontaineek. Zehazki, euroaren funtzionamendu zurruneak ekarri dituen kalteak saihesteko Europako Diru Sistema biziberritzea mahairatu du, euroa sortu aurretik 1979tik 1993ra arte erabili zen tresna.

Bestetik, Europaren batasunari gero eta indar handiagoa ematea nahi duten ezkertiarren aurrean, Lafontaineek uste du deszentralizazioa dela bidea, hori esatean berak luzaz defenditutakoaren autokritika eginez, eta aurrean jarriz Jünger Habermas filosofoa bezalako aditu ezkerrean oso txalotuei: “Demokraziak eta deszentralizazioak elkar baldintzatzen dute”.

Corbynen keinuak Londrestik

Abuztuko paperean ‘B planaren asmoa’ laburbildu zuen Lafontaineek: “Europaren funtzionatzeko era aldatu behar da, inolako legitimitasun demokratikorik ez daukan Banku Zentralari kendu behar zaio tekla bat sakatu hutsarekin demokrazia eteteko ahalmena. (...) Alemaniako ezkerrearen ere oharatu behar luke ‘Euroa hilez gero, Europa hil da’ mantra *merkeldarra* tranpa bat



dirudien programa dakarren Corbyn. Bizi osoa darama alderdiaren baitan, parlamentario, kritikoa baina alderditik irten gabe. 2003an Irak erasotzeko George W. Bushen eskumakilatzaletan Jose Maria Aznarrekin batera Tony Blair erabili zuten, Corbynek kontra bozkatu zuen.

Labourren lider izateko lehian sartu aurretik bezala gero, beti mintzatu da argi, Hego Amerikako lider ezkerrekin sustatuz bezala Israel kritikatu eta Palestina defendituz. Eta hala ere batzuk harrutuko ziren alderdiak buruzagi izendatu zuen larunbatean, Europa osoa iheslari migratzaileen kaosean murgilduta zegoenean, oholta ganean Corbyn ikusirik “*Refugees welcomed here*” (Iheslariak ongi etorriak zarete hemen) zioen afixaren aurrean. Edo gerran hildako militar ingelesten aldeko ekitaldi batean “*Good save the Queen*” hasten den ereserkiaren isilik geratu zelako.

Sartuko da Corbyn bere alderdiarekin Parisen aldarrikatutako ‘B planaren’ joste lanetan? Europako zein gehiago? Euskaldunen bat? Azarotik aurrera hasiko gara ikusten.

Hasi da eztabaida, ea nola antolatzen den politika berri bat: “Osasunak partekatu eta enpleguak sortzeko, gazteentzako batez ere; trantsizio ekologikoa eta Europar Batasunaren birsortze demokratikoa. Itun europar zeken inhumanoak hautsi eta berriak sortu neoliberalismoaren hesiak gaindituta. Aurrekontuen ituna deuseztu. TTIP AEBekiko merkataritza librezko ituna arbuia-tu”. Hitz gutxitan, lan handi bat esku artean. ■

dela (...) Grezian ikusitakoak ikusita, Europa demokratikoa eta soziala nahi badu ezkerrek Europarekiko bere politika aldatu behar du eta bide berrietatik abiatu”.

Baina, Lafontaine eta guzti Paristik lanerako deia eginez liderrok Europako ekonomiaz eta gizarte zerbitzuez ari diren moduan, Britainia Handian Alderdi Laboristako bazkideek nagusi hautatu duten Jeremy Corbyn askoz programa zabalagoaz ari da bere ‘B planean’. Urrutirago doa.

Ekonomian, austeritate neurriak eten eta aberatsei zerga berriak ezarri, enpresen etekinei bezala. Irakas-kuntzan, sare publikoa lehenestez gain, ikasleentzako beken sistema berrezarri: Corbynek estudianteei

barkamena eskatu die gobernu laboristek beka kredituz ordezkatu zituztelako. Neurri oso zehatzak agindu ditu ere, irabazten badu, etxebizitzetan, politika sozialean, osasun sare publikoaren indartzean, genero berdintasunean...

Baina 2015eko Europar harrigarriena ez dira suertatzen Corbynen programa sozial oso ezkerrekoaren atalok. Are deigarriagoa da gobernu bereganatu nahi duen alderdi bateko buruzagia ausartzea energia konpainien eta ferrokarrilen nazionalizazioa proposatzera. Eta zer esanik ez Britainia Handia OTANetik irtetea eta *Trident* programa militar atomikoa geldiaraztea.

Labourrek ez du ezustean hautatu eskuetan laborista baino troskista

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Elkarrizketa eraikiz

“**GERNIKAKO** Estatutua ez betetzea izan da, eta da, sistema demokratikoak euskal gizartearekin eta nazionalismo demokratikoarekin hartutako konpromisoa amaitu nahi ez izanaren porrot handia; eta euskal gatazka, izaera politikoduna eta ETA baino askoz lehenagokoa, konpondu gabe dago oraindik”. Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiak 2011n argitaratutako memoria liburutik jasotako esaldia da. Ondo pentsatutako berbak direla esan liteke, beraz. Horrela amaitzen du paragrafoa: “Euskal gizartean nazio partaidetzaz dagoen bikotasuna –euskal herritarra/euskal-espainiarra–, horixe da izaera politikoa duen gatazkaren oinarrian dagoena. 1986an aditu europarrek aholkatu ziguten Estatu Libre Elkartuaren formula berreskuratzea legoke agian”.

Egongo dira bikotasun horri erantzun ahal dioten hainbat harreman formula eta datozen hilabeteetan asko hitz egingo da horien gainean. Autogobernu lantaldeak eskatutakoari erantzunez, Eusko Jaurlaritzak hainbat txosten bidali zituen joan den astean Eusko Legebiltzarrera. Josu Erkoreka eledunak azaldu zuenez, Jaurlaritzak bere aurrekontua bikoiztuko luke –10.000 milioi eurotik 20.000 milioira– bere eskuetan balitu Madrilek oraindik transferitu bako 24 eskumenak. Legealdi amaiera dator Eusko Legebiltzarrera eta autogobernu ponentziaren lanaren amaiera. Etorriko denaren lagin txiki bat besterik ez da Erkorekak azaldua, hori bai, kasu honetan oso esanguratsua.

Gernikako Estatutuan dagoen kontzertu ekonomikoa kontzertu politiko ere bihurtu nahi du EAJk, Madril eta Gasteizko harremana

aldebikotasunean oinarritu dadin. Oraindik ez dago batere garbi tesuinguru horretan nola geratuko den erabaki eskubidea, baina oso posible da orain bezala geratzea: hau da, Eusko Legebiltzarrak onartua du autodeterminazio eskubidea, baina ez da ezer egiten uneren batean herritarrek horren gainean erabaki dezaten.

ERABAKI ESKUBIDEA, alabaina, dagoeneko ez da bakarrik gure nazio izaeraz erabakitze tresna, Ibarretxe planean irudikatzen zen legez, adibidez. Kontzeptu politiko gisa bere bilakaera izan du eta herritarrek erabaki nahi dute euren egunerokotasunaz, eta ez bakarrik lau urtez behin. 2008ko krisia hasi zenetik emandako herritarren ahalmentzea geratzeko etorri da. Euskal herritarrek erabaki nahi dute LOMCeri buruz, gizarte segurantzaren norabideaz, osasunean eta hezkuntzan inbertitu nahi duten dirutzez... Hainbat esparrutan egunerokoan erabakitzea eskatzen da gero eta gehiago.

Hori, beraz, oso kontuan hartzeko aldagaia izango da aurrerantzean. Ikuspegi hori ere garrantzitsua da Nafarroan –edo

naziotasunean erabakitzeke atea ere irekitzen duelako.


Funtsean, hori zen Espainiako hauteskunde orokorretarako EAEn uda aurretik plazaratu zen ezkerreko indarren aliantza proposamenaren oinarria. Ahal Duguko zuzendaritzak ez zuen begi onez ikusi –batzarrak edo zuzendaritzak bakarrik erabakita?– eta ekimenak ez du aurrera egin. Nafarroan ere antzeko proposamena egin berri dute kultura eta politika munduko hainbat pertsonak, baina haien eskaerak ez du emaitzarik izan alderdien aldetik.

Herritarren batzar batek, ordea, ezkerreko indarren hautagaitza bateratu baterako proposamena luzatu die alderdiei eta proposamena airean da oraindik. Proposamenaren atzean, besteak beste, EH Bildu, Ahal Dugu, Batzarre eta Ezker Batuaren inguruko jendea ari da. Seguruenik udazken hasierak irentsiko du ahalegina, baina saioak erakusten du herritar askoren buruan zein norabide dagoen eta ahaleginak duen potentzialitatea.

ERAIKIZ agiria plazaratu duen biktima talde anitzak ideia interesgarri ugari jarri ditu mahai gainean, baina bat nagusi, eta batez ere politikariei bideratua: hasi mugitzen, gu oinarritzako akordio batzuetara iristeko gai izan bagara, zuek ere bai. Zoru etikoa, biolentzia, giza eskubideak eta Ardanzak dioen arazo politikoa. Hori dena eta gehiago da euskal gizarteak pendiente duen debate mamitsuaren zorro sakon horretan. Elkar jotzeko gaitasuna aski frogatua dute euskal herritarrek historian zehar; bada baldintza aski elkarrizketari sakon ekiteko. Ez dago aitzakiarik. ■

Bada baldintza aski elkarrizketari sakon ekiteko; ez dago aitzakiarik

Valentzian eta Galizian– emandako aldaketa politikoa ulertzeko. Abertzaletasunak badu hor garrantzitsua den esparrua, bizitzako ohiko esparru ugarietan erabakitzeke eskubidearen garapenak, beretzat klabea den



argia

ARGIA komunitatea osatzen dugun guztion GUNEA da honakoa. Bertan, harpidedunek zein Piztu Ezazu Argiaren bitartez ekarpen ekonomikoa egin duzuen lagunek, ARGIA-ren baloreekin bat egiten duten produktu eta zerbitzuen **ZOKETAN** parte hartzeko aukera duzue.

HURRENGO HILABETETARAKO PROPOSAMENA

Balore hauen inguruan lan egiten duten eragile eta mugimenduen lanaren erakusleihu izango da, printzipio horiekin bat egiten duten material eta zerbitzuen berri eman eta zozketatzeko aukera egongo delarik.

IRAILEKO SARIAK

Bitartean, ARGIAkideoi zuen babesak eskertzen jarraitzeko, aurten kaleratu ditugun produktuen zozketan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.



elikadura burujabetza

ingurumena

EUSKALTZALETASUNA

INDEPENDENTZIA

PAREKIDETASUNA

giza eskubideen defentsa

herrien mundua

demokrazia zuzena

orimen historikoa

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

DESOBEDIENTZIA ZIBILA

sexu askapena



Bizi Baratzea liburua

5 opari



Europako Herrien mapa

5 opari



Argia kamiseta

5 opari

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

 **argia eguna 2015**

TXIKITIK ERAGITEN

ZENBAKI SARITUA

0906

SARIA

Oñatiko Arrikruz Kobetan bisita gidatua eta
hotel Torre Zumeltzegin ortordua bi lagunentzako
Saria jasotzeko: ☎ 943 371 545 (Hilabeteko epea)

